


# Zerez eginda dago komunikazioa?

Berbalak ez diren hizkuntzak eta baliabideak



Kasilda Elorriaga del Hierro

**Casilda Elorriaga del Hierro**

**Zerez eginda dago komunikazioa?**

**Berbalak ez diren hizkuntzak eta  
baliabideak**

**Gizarte-integrazioa**

**5. lanbide-modulua: Komunikazioaren oinarriko jarraibideak eta  
sistema alternatiboak**

Hezkuntza, Unibertsitate et Ikerketa Sailak onetsia: 2002 / 10 / 4

© Casilda Elorriaga del Hierro, 2003

© Argitalpen honena:

Dakit argitaldaria, 2003

Herrikobarra, 28 • 20.800 ZARAUTZ

(+34) 666 47 27 16 • dakit@airtel.net • <http://www.dakit.org>

Azalaren diseinua: Ivan Estevez

1. argitalpena: 2003 iraila

2. argitalpena: 2004 iraila

ISBN: 84-932368-8-8

Lege gordailua:

Irarkola: DELTA

# Aurkibidea

## I. Komunikazioa: zenbait kontzeptu

1.1. Komunikazioaren beharra	7
1.2. Komunikazio eraginkorra	8
1.3. Komunikazio prozesuaren elementuak	10
1.3.1. Igorlea, hitzuna	10
1.3.2. Hartzaila, entzulea	11
1.3.3. Mezua, informazioa	12
1.3.4. Kodea, hizkuntza	12
1.3.5. Hedabidea, kanala	13
1.4. Komunikazioaren bi osagai gehiago	13
1.5. Komunikazioaren eragozpenak eta errazpideak	15
1.6. Ahozko eta idatzizko komunikazioa	16
1.7. Laburpena	20
Bibliografia iruzkindua	23
Ikasleentzako ariketak	25
Ariketen erantzunak	26


## II. Komunikazioa eta hizkuntzak

2.1. Zeinuak, zer dira?	30
2.2. Hitzezkoa ez den komunikazioa	32
2.3. Hizkuntzak eta zeinuak:	34
2.3.1. Zeinu hizkuntza	34
2.3.2. Bliss sistema	37
2.3.3. Johnson-en KPS sistema	40
2.3.4. PIC piktogramak	41
2.3.5. Premack-en pezak edo fitzak	42
2.3.6. Rebus-en sistema hieroglifikoa	42
2.3.7. Komunikatzeko beste baliabide batzuk	42
Bibliografia iruzkindua	44
Ikasleentzako ariketak	47
Ariketen erantzunak	48

## III. ERANSKINAK

3.1. Hiztegia iruzkindua	51
3.2. Gaztelania-euskara hiztegia	59





# **1** *Komunikazioa: zenbait kontzeptu*

- 1.1. KOMUNIKAZIOAREN BEHARRA.
  - 1.2. KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA.
  - 1.3. KOMUNIKAZIO PROZESUAREN ELEMENTUAK.
    - 1.3.1. Igorlea, hitzuna.
    - 1.3.2. Hartzaila, entzulea.
    - 1.3.3. Mezua, informazioa.
    - 1.3.4. Kodea, hizkuntza.
    - 1.3.5. Hedabidea, kanala.
  - 1.4. KOMUNIKAZIOAREN BI OSAGAI GEHIAGO.
    - 1.4.1. Erreferentea.
    - 1.4.2. Testuingurua.
  - 1.5. KOMUNIKAZIOAREN ERAGOZPENAK ETA ERRAZPIDEAK.
    - 1.5.1. Zaratak.
    - 1.5.2. Erreduantziak.
  - 1.6. AHOZKO ETA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA.
    - 1.6.1. Ahozko diskurtsoa
    - 1.6.2. Idatzizko komunikazioa.
  - 1.7. LABURPENA.
    - 1.7.1. Komunikazio prozesuaren elementuak
    - 1.7.2. Hizkuntz funtzioak
    - 1.7.3. Ahozko hitzaldia prestatzeko plangintza
    - 1.7.4. Komunikazioaren zaratak
- BIBLIOGRAFIA IRUZKINDUA  
IKASLEENTZAKO ARIKETAK  
ARIKETEN ERANTZUNAK

## 1.– KOMUNIKAZIOA: ZENBAIT KONTZEPTU

### 1.1.– KOMUNIKAZIOAREN BEHARRA.

Gure pentsamenduak, pozak, ideiak, asmoak eta iritziak komunikazioaren bidez adierazten dizkiogu elkarri. Izan ere, gizakiok ez gara bakarka bizi, beste emakume, gizon eta animaliekin harremanetan baizik. Eta harreman hauek komunikazioari esker bideratzen dira. Komunikazio ekintzak egiten ditugu edo jasotzen ditugu; esate baterako:

- anbulantziaren sirena hotsak kalea libre utz dezagula esaten digu
- eskua altxatuz bilkuretan hitza eskatzen dugu
- semaforoaren argi berdeak kalea zeharka dezakegula jakinarazten digu
- janariaren usain onak jateko ordua heldu dela ohartarazten digu
- lagunei egindako irribarreekin informazioa ematen diegu
- amak esandako aholkuak agindutzat hartzen ditugu
- Bliss deritzon hizkuntzaren bidez irudikatzen dugun marrazkiak adierazia azaltzen digu.

Anbulantziaren sirena hotsak, eskua altxatzeak, janariaren usain onak, irribarreak, aholkuak, marrazkiak eta antzeko zeinuek, era askotakoak izan arren, informazioa helarazten digute. Gizakiok komunikabide ugari asmatu ditugu, baina, komunikabideen artean, hizkuntzari dagozkionak zehatzenak dira. Gainera, animaliek komunikazioa dutela begi-bistan dago: erleek,

hegaztiek, tximinoek... janaria lortzeko, defendatzeko, jolas egiteko... komunikazio bereziari esker lortzen dute behar horiek asetzea. Hau da, informazioa bai gizakiek bai animaliek bideratzen dute.

Bizitzan zehar, pertsonen adierazpen beharrak aldatzen dira eta, horiekin batera, komunikaziorako baliabideak.

Haurrek, umeek ez dute hizkuntzarik menperatzen, baina gosea, mina, egarria adierazten dituzte zeinuen bidez, imintzioez, muzin eginez eta behar-beharrezko lehentasunak lortzen dituzte. Zeinu horiek, koderik gabekoak izan arren, ez dira ahazten: gaixoek (Alzheimerrak jota daudenak, etab.) barruko ezaguerak behartuta balira bezala egiten dituzte.

Lehenengo betebeharrak ase ondoren, gizakiok hizkuntzaren bidez esaten ditugu gizartean gertatzen direnak. Munduan bizi izaten garela kontuan izanik, politikaz, lanaz, amodioaz, ekonomiaz, hitz egiten dugu eta arlo hauetako hizkuntza edo kodea, ondo eraturik, erabiltzen dugu informazioa bidaltzeko edo ulertzeko.

Zenbait lagunek norberaren izaera adierazten dituzten sentimenduak, ideiak... baliabide berezien bidez (artearen, musikaren bidez, etab.) azaltzen dituzte. Artistek eta pentsatzaileek beraien baitan daudenak kode ezberdinen bitartez azaltzen dituzte. Komunikazio mota hori gizaki batzuek bakarrik lortzen dute<sup>1</sup>.

1. Abraham H. MASLOW-en liburutik kontzeptu horiek ondorioztatzen dira. Ikus ezazu bibliografia atala.



Esanak esan, komunikazio ekintzak ezinbestekoak direla baieztatu dezakegu. Baina edozein komunikazio ez da helburura heltzen hartzailerik ez badago edo beste komunikazio elementu bat falta bada. Beraz, hurrengo paragrafoan komunikazioa zer den azalduko dugu.

## 1.2. KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA.


Zer dugu buruan komunikazio izena erabiltzen dugunean? Demagun esaten dugula:

- «Telefono mugikorra komunikazio sistema oso garestia da».
- «Bikote horien arteko komunikaziorik ez dago».
- «Gela biren arteko komunikazioa begi-bistakoa da».



Ondoko hiru esaldietan komunikazio hitz bera erabili arren, «komunikazio» adierazia esaldiaren arabera ezberdina da; lehenengo esaldian, komunikazio hitzak telefonoaren sistema adierazten du; bigarrean, «komunikaziorik» adierazlea «harremanik» hitzaren sinonimoa da; hirugarren esaldian, «ate» deritzon kontzeptua adierazten du komunikazio adierazleak.


Komunikazioa hau da: mezuak egiteko eta ulertzeko gai den igorleak hartzaile bati bidaltzen dion informazioa; hots, igorleak hartzaileari esaten diona.



Lehenengo irudiko komunikazioa ez da osoa, gizona idazten egon arren. Hau da, gizonak (igorleak) zerbait (mezua) idatzi arren, **informazioa** egin arren, hartzailerik ez badago edo hartzaileak ez badu ezer ulertzen, edo itsua bada, ez da komunikazio bidea osatzen. Bigarrean, maisuak esandako mezua entzuleek ulertzen badute, **komunikazioa** dagoela esaten dugu.


Mezuak, egokituta egon arren, komunikazio jardueran informazioren bat galtzen du; komunikazio ekintzetan % 40 edo galtzen du. Ikus dezagun hurrengo grafikoa:

### Komunikazio ekintza



Beraz, hartzaileak ondo ulertzen badu ere, bakarrik % 60 hartuko du. Gero, *feedback*-aren ondorioz mezuaren esanahiak % 10 gehituko du eta % 70 ulertuko du hartzaileak.

### Komunikazio ekintza



Nahiz eta komunikazio jarduerak ezberdinak izan, orokorrean, baldintzaturik daudela esan dezakegu, oztoporik nagusienak bi izanik: zaratak eta gaitasun eza.

- Zaratak eta hotsak*: antzinako oroitzapen mingotsak, bizipenak, nahiak... oztopoak dira komunikazio eraginkorra egiteko<sup>2</sup>.
- Hartzailearen edo igorlearen komunikazio *gaitasunik ezak* mezuaren ulermena zaildu egiten du. Horregatik, maisuek eta buru urrituen hezitzailek Zeinu hizkuntzaz baliatzen badira ondo menperatu egin behar dute gorrekin komunikazioa errazteko.

2. Ikus ezazu 1.5.1 atalean.

### 1.3. KOMUNIKAZIO PROZESUAREN ELEMENTUAK.

Komunikazioa sortzen denean parte hartzen dutenek sistema bat eratzen dute. Komunikazio sistema horren elementuak hauexek dira: igorlea, hartzailea, mezua, kodea eta kanala.

#### 1.3.1. *Igorlea, hiztuna.*

Mezua bidaltzen duena igorlea da. Kode jakin batean, arauen arabera, mezua sorrarazten duena. Mezua leku batetik bestera joaten da igorlea biziduna izanik. Gizaki nahiz talde bat (ama, maisua, udala...) edo animalia, eguzkia zein tresna (telebista, ordenagailua) izan daitezke igorleak. Jaioberriek edo amaren sabelean daudenek ere mezuak bidaltzen dizkigute zarata zein mugimenduen bidez gosea, mina edo deserosotasuna adierazteko; haiek, kodeak ezagutu ez arren, beren erara igortzen dituzte mezuak.

Mezuaren era igorleak hartzailearengandik lortu nahi duenarekin erlazionatuta dago; halaber, hiztunak, zeinu batzuen bidez eta horrekin batera doinua eta hizkuntza egokituz, mezuaren kodifikazioa hartzaileari begira ekoizten du<sup>3</sup>.

*Igorleak betetzen duen hizkuntz funtzioa, funtzio hunkitzailea, espresiboa edo adierazkorra da, hizlariaren jarrera edo izaera erakusten duena. Bere barneko egoera azaltzera jotzen du subjektuak, eta*

3. Mezuen egokitzapen horiek informazioaren ikuspuntua alda dezakete..

nahi ez badu ere, esaldietan agertzen da barruko sentipena<sup>4</sup>.

Igorleak mezua bidaltzeko betetzen dituen faseak hauexek dira:

- hasieran, igorleak zer esan nahi duen eta mezua nola burutuko duen argi ikusi behar du eta informazioa bere asmoaren arabera ezkutaturik, gerizaturik edo begi-bistan azalduko du.
- informazioan hiru aldaketa mota ager daitezke. Lehenengo informazioaren aldaketa igorlearen buruan egiten da; horren asmo komunikatiboa testuinguruaren eraginarekin nahasten da hein batean, eta ikuspuntu horiekin ekoiztuko du mezua. Adibidez: Bilbon elbarrientzako aparkalekuak beharrezkoak direla dio igorleak, baina bera elbarria bada, askoz ere konbentzituago egongo da eta bere ikuspuntua islatuko du mezuan. Bigarren informazioaren aldaketa mezuaren kodean egiten da. Igorleak duen hizkuntzaren erraztasunak edo zailtasunak mezuaren era gramatikala aldatuko du, baita mezuaren ideien bat ere. Azken informazioaren aldaketa mezuaren jardueran, *elokutioan*, egin ohi da; testuingurua eta hartzailea kontuan hartuz mezuaren era aldatzen du igorleak<sup>5</sup>.



*Feedbacka edo atzeraelikadura*<sup>6</sup>. Igorleak, *feedbacka* eginez eta atzeraelikaduraren bidez,

4. Komunikazioari begira, igorleak bere burua ezagutu behar du; ikus ezazu C. STEINER-en liburua, bibliografia atalean aipaturik, igorlearen barruko izaera eta hartzaileen gidoiak aztertzen dira. Bezeroen ezagupenaren onurari buruzko gaia Merkataritza deritzon Heziketa Zikloan ikasten da.

5. Ikus ezazu 1.7.3. atala.

6. Jarrera mimetikoaren erabileraz lortzen den atzeraelikadura oso eraginkorra da norbaitekiko komunikazioan; jarrera mimetiko horretan, batek egiten duen guztia, besteak ere errepikatzen du.

hartzaileari heltzen zaion komunikazioa egiaztatzen du igorleak; horrela, hartzaileari informazio eta asmo komunikatiboa ondo heltzen zaion jakingo du igorleak. Orokorrean, komunikazioan gertatzen dena, hauxe da:



### 1.3.2. Hartzailea, entzulea.

Mezua norbaiti, hartzaileari, ikusleari bidaltzen zaio; hala ere, komunikazioan hartzaileak parte hartzen duelako ez da jasotzaile pasiboa eragilea baizik. Horrek mezuaren deskodifikazioa egiten du buruan: zeinuen identifikazioa eta ulermena. Hartzaileari bidaltzen zaion informazioa kode ulergarri batean kodifikatuta dago eta entzuleak ez badu kode hori ulertzen ez da osatzen komunikazioa, igorlea kode horretan aditua izan arren.

*Hartzailearekin loturik dagoen funtzioa agindu funtzioa*, eragilea edo konatiboa da: zerbait egitera

bultzatzen duelako; sarritan, bigarren pertsona erabiltzen da funtzio hori eskuratzeko: "Aizu, ikus liburua!", "Zainduko al zenidake txakurra?"; publicitatearen iragarkietan argi islatzen da agindu funtzioa. Dena dela, ez da bat ere erraza zenbait lagunek aginduren bat betetzea, eta ez bakarrik autistek edo adimen urriko pertsonak, nerabeek baizik.

### **1.3.3 Mezua, informazioa.**

Mezua igorleak hartzaileari bidaltzen dion informazioaren edukia da. Eta eduki hori ulertzeko mezuaren kodea igorleak eta hartzaileak ezagutu behar izango dute beraien arteko komunikazioa lortzeko, horregatik, ume gorren gurasoek Zeinu hizkuntzaren adierazle batzuk, gutxienez, menperatu behar dituzte umeekin hitz egiteko.

*Mezuarekin, komunikazio prozesuaren elementu horiekin, testuaren funtzio poetikoak duke zerikusia.* Izan ere, funtzio horren ardura mezuaren era da; adibidez: hitz gorriak adieraziz, metaforak eta metonimiak asmatuz, esaldiak azpimarratuz, eta beste medio batzuk erabiliz, mezuaren era aldatzen da eta mezua edertasunaz edo biraoez kodifika daiteke. Bi maila horietan, jasoan edo lagunaren arteko hizketan, funtzio poetikoa dago. Gainera, funtzio poetikoa elkarrizketetan literaturan baino gehiago erabiltzen da; guk metaforak, metonimiak, hitz jokoak, eratorpenak, hiperboleak hizketan idaztean baino gehiago erabiltzen

ditugu. Baliabide erretoriko horiek hitzen irudietan oinarrituta daude eta komunikazioa eraginkor eta bizi bihurtzen dute. Laburbilduz, funtzio poetikoak hartzailea ez aspertzea eta mezuaren ardatza argi ikustea lortzen du.

### **1.3.4 Kodea, hizkuntza.**

Mezua kodea edo hizkuntza edo baliabide baten bidez kodifikatzen da; adibidez: lan hau euskaraz idatzita dago, beraz, honen kodea, sistema edo hizkuntza euskara da. Kodea ez da nolana hikoia, araubideren bidez antolatuz eta mugaturik dagoen zeinu sistema da, igorleak eta hartzaileak ezagutzen dutena. Sistemarik landuenak hizkuntzetan ditugu, baina, hizkuntzez gain, beste baliabide batzuk daude: lexigramak, Osatutako Hitza, ...

*Funtzio metalinguistikoa kodearekin loturik dago;* izan ere, hartzaileak uler ez ditzakeen zeinuen zentzuak argitzea du helburu funtzio horrek; adibidez, funtzio metalinguistikoari buruzko azalpen honek funtzio metalinguistikoa du; hots, testuan, hitz baten esanahiaren azalpena funtzio horrek betetzen du. Ikasgeletan adigaitzak diren zeinuak ulergarri bihurtu arte azaldu behar dira, bestela zeinuen ulertezintasunek komunikazioa murriztuko edo deuseztatuko dute.

### 1.3.5. Hedabidea, kanala.


*Medium*-a bitartekari fisikoa da, igorlearen mezua hartzaileari hurbiltzen diona. Telefono mugikorraz hitz eginez bitartekariak uhinak dira, gutunetan kanala edo bidea papera da, etab. Alegia, ez da mezurik igortzen biderik gabe. Zeinu hizkuntzaz hitz eginez, bitartekaria gorputza bera da, hots, gorputzaren goiko partea, besoak, eskuak eta aurpegia.

*Funtzio fatikoa edo euslea bidearekin lotua da.* Lagunen arteko komunikazioaren arreta, entzumena edo harremana gal ez dadin kanala edo komunikazioaren bidea egiaztatu egin behar da eta bermatzeko erabiltzen diren zeinuek funtzio fatikoa betetzen dute. Adibidez, igogailuetan eguraldiari buruz hitz egiten dugunean, mezurik ez badago ere, hitz horiek pisukideok harremanetan gaudela adierazten digute.

Dena dela, arretari eustea ez da batere erraza testuinguru eta egoeraren arabera. Esate baterako: autistek ez dute biderik eduki nahi eta beraien zaintzaileek autistei interesatzen zaizkien gauzarik ikusgarrienez edota gozogarrienez hitz egiten dituzten arren, autisten arreta lortzea guztiz zaila da, gaixotasunaren ondorioa da eta.

Laburbilduz, orain arte ikusi ditugun komunikazio prozesuaren elementuak hauexek dira:

### Komunikazio prozesua



### 1.4. KOMUNIKAZIOAREN BI OSAGAI GEHIAGO.

Ikusitako komunikazio prozesuaren elementuez gain, beste bi osagai daude, komunikazio ekintzatik kanpokoak: erreferentea eta testuingurua, hain zuzen ere.

**1.4.1 Erreferentea** hizkuntzaz kanpoko errealitatea da, mezuan aipatzen dena, aipamen hori objektua edo tresna delarik; erreferenteak, konkretua, errealitatez, mezuari zehaztasuna ematen dio: arbolak, mahaia, ordenagailuak erreferenteak izan daitezke, baina sentimenduz edo filosofiaz hitz egiten dugunean, komunikazioan ez dago erreferenterik: sentimenduak filosofia entitateak direlako. Horregatik, erreferenterik gabeko mezuak zailagoak dira konkretuak baino eta ulergaitzak diren gaiak, erreferenterik gabekoak, ez omen dira komenigarriak umeekin zein atsoekin harremanetan jartzeko.

*Funtzio aipatzailea edo erreferentziala* erreferentearekin loturik dago. Mezuaren ardatzaren eta objektuaren arteko harremana bermatzen du, ahalik eta erarik objektiboenean. Beraz, funtzio aipatzailea sarritan dago mezuetan, testuak gai konkretuari buruz hitz egiten badu, baina horrek ez du esan nahi diskurtsoan funtzio aipatzailea edo erreferentziala funtzio nagusia denik. Aitzitik, funtzio erreferentziala egon arren, hunkitzaileak, eusleak edo agindu funtzioak menderatzen dute mezua.

**1.4.2. Testuingurua** testu baten hitzen arteko esanahiak duen lotura da, baita egileak eta hartzaileak ingurunearekin duten harremana ere. Hots, bi testuinguru mota daude: bata: hizkuntz gertaera eta, bestea:lekua eta uea.

**1.4.2.1.** Geroago aipatuko dugun bezala, testua *hizkuntz gertaera* da, hitzez eta perpausez osaturik. Esaldi baten inguruan dauden beste hitz eta esaldi batzuek hizkuntz gertaera eta diskurtsoaren informazioa osatzen dituzte. Hizkuntz gertaera hartzaileari begira egokitu behar da; izan ere, mezua, bera izan arren, ez diogu haur bati edo heldu bati era berean bidaltzen. Gainera, mezua idatzizkoa edo ahozkoa izanda, aldatzen da. Hurrengo koadroetan, ahozko eta idatzizko komunikazioen arteko hainbat ezberdintasun azaltzen dira:

#### AHOZKO MEZUAREN BEREZITASUNAK

- Ahotsaren tonuaren jokia, ahoskera, berbalak ez diren baliabideak.
- Elipsiak, deiktikoak, bukatu gabeko esaldiak.
- Akats linguistikoak.
- Ordenarik gabeko ideiak.
- Errepikapenak, betegarriak, harridurak.

#### IDATZIZKO MEZUAREN BEREZITASUNAK

- Ortografia, kaligrafia zainduta.
- Hitz jasoak, perpausak, paragrafoak ondo antolaturik.
- Komuntadurak. Anakolutorik gabeko esaldiak.
- Forma sintaktikoen ugaritasun eta doitasuna.
- Aberastasun eta zehaztasun lexikala.

**1.4.2.2.** Hizkuntz gertaeraz gain, beste testuinguru mota bat dagoela esan dezakegu: lekua eta uea. *Ingurune fisikoa*, lekua, igorlearen eta hartzailearen arteko tokia da. Esparru fisiko horrek erabat eragiten du komunikazioa: alde batetik, lekuak informazioa zehazten duelako eta, bestetik, mezuaren era helarazten duelako. Adibidez: igorlea eta hartzailea leku berean elkarriketatzen direnean, elipsiak, errepikapenak, eta lehentasunik gabeko esaldiak erabiliko dituzte eta mezuaren informazioa argi geratuko da; aitzitik, haien arteko lekua bera ez bada, mezua egokitasunaz eta

koherentziaz osatu egin behar izango dute. Hau da: komunikazioa espazio fisiko batean (psikomotrizitate gelan, ikasgelan, kalean, ...) burutzen da. Eta egun berean, harremanetako uneak ugariak dira..

\* \* \*

Komunikazio prozesuaren elementuak, erreferentea eta testuingurua kontuan hartuz, adibide honetan zehazten dira:

— Museoan gizon gor bat koadroak ikusten ari da. Hango atezainak museoaren xtear dagoela esaten dio; gorak atezainaren ezpainak irakurriz mezua ulertzen du.

- |   |
|---|
| Igorlea: ..... Atezainak                        |
| 2. Hartzailea: ..... Museoan dagoen gizon hori. |
| 3. Mezua: ..... Atezainak esaten diona.         |
| 4. Bidea: ..... Ezpainak.                       |
| 5. Kodea: ..... Hizkuntza.                      |
| * Erreferentea: ..... Ez dago erreferenterik.   |
| * Testuingurua: ..... Museoaren, unea.          |

## 1.5. KOMUNIKAZIOAREN ERAGOZPENAK ETA ERRAZPIDEAK.

Komunikazioa ez da beti lortzen; izan ere, ulermena, jarduera konplexua izateaz gain, hizkuntz gaitasunaren ezak eta 'zaratak' oztopatzen dute; prozesu hori errazteko, erredundantziak erabiltzen dira.

**1.5.1. Zaratak.** Komunikazioaren teorian, informazio galera guztiei deritze zarata. Edozein mezuren igorpenetan trabak edo eragozpenak gerta daitezke, adibidez: gutun edo txosten bateko zirriborroak, lohidurak, kaligrafia zabarra, etab. zaratak dira baita telebistako interferentziak, ikasgeletako beroa, logura eta inguruko hotsak ere zaratak deitzen ditugu.

Bi zarata mota daude: fisikoak eta psikologikoak. Lehenengoak ikusgarriak edo entzungarriak dira, goiko adibidean agertzen direnak bezalakoak. Bigarrenak psikologikoak dira; hartzaileak eta igorleak buruan dituztenak zarata horiek; horregatik kezka, joerak, urduritasuna eta abar baztertu egin behar dira komunikazioa oztoporik gabe bideratzeko. Komunikatzaile on batek, jarduera egin baino lehen, barruan dituen zaratak hitzalditik kanpo uzten ditu, eta gauza bera egiten du hartzaileak mezuaren ardatza ondo ulertzeko.



**1.5.2. Erredundantziak.** Idaztean sartzen ditugun errepikapenak dira; hau da: sinonimoak, deiktikoak... Ahozkoan, hitzekin loturik dauden keinuak, mugimenduak, imintzioak etab. erredundantziak dira. Kontzeptuari, adierazlearen adieraziari ez eusteko erabiltzen dira.

Zaratak eta erredundantziei buruzko adibideak:

- eguzkitan irakurtzen egotea
- paragrafoen lerro kopurua kontuan ez hartzea
- hitz bera bi aldiz esatea
- kontzeptua erlatiboazko esaldiaren bidez azaltzea
- subjektuaren eta aditzaren artean koma idaztea
- aspergarria den hitzaldia entzutea
- garrantzirik ez duen informazioa ematea
- galdera ikurrik gabe egitea
- testuko ideien egitura zaintzea
- buruko mina edukitzea
- hitzaren sinonimoa ematea
- testua testuinguruarekin ahalik eta egokien lotzea
- testuaren sintaxiaren elementuak ondo harilkatzea
- ahotsaren doinua ez aldatzea.

### **1.6. AHOZKO ETA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA.**

Komunikazioa, antzina, zeinuen bitartez egiten zen, eta hastapenetik gizateriaren garapenarekin dago lotuta. Hiru epetan sailka ditzakegu komunikazioaren aroak.

- Berbaren aurreko komunikazioaren aroa aurrehominidoen garaia izan zen. Ugaztunen arteko oinarritzko informazio trukaketa keinuz, jausiz, gorputz mugimenduz, oroz egiten zuten.
- Gizarte oralaren aroan, berriz, komunikazio

oinarria berba izan zen. Berbak, harremanetan eta komunikazioan, keinuei lagundu zien; zehaztasuna ekarri zuen hitzak.

- Ahozko harreman zuzena idazkerarekin aberastu egin zen. Idazkeraren aroan idatzi ziren lehenengo dokumentuak herriko historia, legeak eta erlijiozko dokumentuak izan ziren; mendeak pasa eta gero, idazkeraren zabalkuntzaren ondorioz, aro elektronikoan bizi garela esan dezakegu, tresna ugari ditugu komunikatzeko elektronikaren bidez.

*Ahozko hizkuntza eta idatzizkoa Haur Hezkuntzan.*

Haur txikiari hizkuntzaren aurreko komunikaziotik hizkuntza bidezko komunikaziora pasatzeko eguneroko azturek eta ohikeria mimetikoek laguntzen diote; hots, familian bertan eta ingurugiroan hizkuntza ikasten du. Kontestu inguru horretan heldua eta haurra harremanetan daude eta kodea erabiltzeko gaitasuna lortzen du umeak; beraz, komunikazio sistema gizartean integratuta erabiltzen ikasten du. Haurra jaten ari denean entzuten dizkio amari: «hartu», «jan ezazu», «ze goxoa,» etab. Esaldi horiek tonu jakin batekin esanak dira, koilara ahora hurbiltzen dion bitartean, jateko eskatuz, iradokiz, etab. Eskolan, Haur Hezkuntzaren etapan, testuinguru egonkor eta egituratu batean elkar banatutako esanahia funtsezkoa da, hori baita hizkuntza behar bezala garatzeko behar duen oinarria. Beraz, etapa honetako irakasleei hainbat iradokizun ematea beharrezkoa da: horiei esker, irakasleak, berez, diseina dezake Haur Hezkuntzarako

ahozko hizkuntza eta idatzizkoa lantzeko programa egokia prestatzen lagunduko dioten jarduerak?

Gorago aipatu bezala, ahozko eta idatzizko adierazpenen arteko ezberdintasunak nabarmenak dira ahozko erak eta idatzizkoak diskurtso eredu diferentek eratzen dituztelako.

**1.6.1 Ahozko diskurtso hainbat** mota daude: solasa, debatea, mitina, eztabaida etab. Hartzailea eta testuingurua kontuan hartuz, beraien hizkuntz maila aldatu egiten da. Eman dezagun telebistan, kazetaritza-elkarrizketa gaurkotasunarekin oso lotua den politiko bati egiten zaiola: telesaior horretan pertsonaiak egokitasunez eta koherentziaz hitz egingo du bere adeitasuna eta jarrera erakusteko; aitzitik, pisukideen arteko eztabaidan lagunaren arteko hizkuntza erabiliko du.

Hori horrela izanik, ahozko jarduerak hiru mailatan bana daitezke:

— *Jasoa*. Zuzentasunari eta zehaztasunari ematen die garrantzia. Maila landua edo jasoa denok (maisua, ikaslea, saltzaileak...) behar genuke hartu xedetzat. Bere ezaugarriak, besteak beste, hauexek dira:

- ◆ ahoskera zaindua: bustidurak, hiatoak, azentua, hitz kateak eta fonemak ondo ahoskatuz
- ◆ kohesio elementuak adieraziz
- ◆ ideiak garbi sailkatuz
- ◆ lexiko zabal eta zehatza erabiliz

— *Teknikoa edo zientifikoa*. Hau zientziako edo teknikako hizkera da, argitasuna eta doitasuna helburuak izanik:

- ◆ maileguak eta hitz berriak onartuz: joystick-a
- ◆ esaldiak argi antolaturik
- ◆ adieraziak begi bistan jartzeko etenak eta azalpenak erabiliz
- ◆ metafora eta konparaketen bidez esanahiak argi emanez

— *Kolokiala, herritarra edo lagunaren arteko hizkera*. Maila honek hizkuntzaren araubidea betetzen du, baliabide batzuk erabili ez arren. Jarraian zenbait ezaugarri ematen dira:

- ◆ Bat-batekotasuna eta adierazkortasuna ditu ezaugarri nagusi; beraz, ahotsaren tonua, ahoskera eta berbalak ez diren kodeak hitzak baino adierazkorragoak dira lagunaren arteko hizkeran.
- ◆ Esaldietako elipsiak, deiktikoak (solaskideak, tokiak edo enuntziarioaren uneak markatzeko erabiltzen direnak), birformulazioak eta errepikapenak ugariak dira. Igorleak eta hartzaileak komunztadurarik gabeko esaldiak edo enuntziarioan bertan beren egitura aldatzen dituzten esaldiak (anakolutoak) esan arren, testuinguruaren bidez mezua ondo ulertzen dute.
- ◆ Argot adierazpenek, hitz dialektalek, lurralde bateko adierazpenek, erretrauek, hitz gorriek, betegarriek... adierazkortasuna ematen diote elkarrizketari.
- ◆ Metaforek, metonimiek, baliabide erretorikoek... begi bistan jartzen dute mezua.

Ahozko jarduerak bideratzeko laneko elkarrizketetan, debateetan, etab. plangintza baten bidez burutu ohi dira; izan ere, ahozko testua, azpiegiturari esker, ulergarriagoa da. Jarduera hau prestatzeko aholkuak, besteak beste, hauexek dira:

*A. Hitzaldia baino lehen.*

- 1.– Hitzaldiaren ardatza finkatu ostean, gaia menperatu behar du hizlariak.
- 2.– Hartzaileri buruzko ezaugarriek (adinak, maila kulturalak, adimenak, zaletasunak, lagunartekotasunak eta elkarren arteko ezagutzak) eragina dute komunikazioan. Esate baterako: ama batek ez dio berdin hitz egiten adimen urriko seme bati edo seme arrunt bati.
- 3.– Elkarrizketaren tokia eta unea kontuan hartu behar dira. Saltzaileak dendan bezeroari hizkera teknikoaz hitz egingo dio, baina dendatik kanpo, kolokialaz edo lagunaren arteko hizkeraz arituko zaio.

*B. Esaterakoan:*

1. Sarrera. Atseginez eta koherentziaz egiten da.
2. Korpusa edo azalpena. Zuzena, digresiorik gabekoa. Azalpenetan kontakizunaren pasarterik deigarrienak bakarrik aipatuz eta etenak, erritmoa, intonazioa... zainduz; beharrezkoa bada, irudiz baliatuz.
3. Amaiera. Hizlariak, ahazt ez dezan, mezuaren mamia berriro esaten du, beste era batera moldaturik.

**1.6.2 Idatzizko komunikazioa.** Gure bizitzan, hitzez edo zeinuz sarriago komunikatzen gara idatziz baino. Gainera, idazteko gaitasuna sarritan ez dago ongi garatuta igorleak ikasketak eduki arren. Idazteko trebetasuna testu motaren arabera landu behar da: iritzi artikuluek, iragarkiek, txostenek, ipuinek, eskari-orriek.. berezko nolakotasunak dituzte eta paragrafoen banaketa, puntuazio ikurrak, erabideak eta testu antolatzaileak ezberdinak dira horien arabera. Idatzizko testuaren ezaugarriak hauexek dira:

—*Egokitasuna*. Ez da gauza bera aragibideak ematea buru urritu bati ala gor bati; hau da, hartzailearen arabera eta asmo komunikatiboa kontuan hartuz, testuak egokitasuna du. Beraz, hizkera mota edo komunikatzeko hizkuntz baliabideak, tresna teknikoak, etab. mezuaren egokitasunarekin zerikusia dute.

—*Koherentzia*. Arlo semantikoari dagokiona da. Garrantziko informazioak eta behar-beharrezkoak direnak hautatuz eta digresioak baztertuz lortzen da. Testuaren mezua argi ikusten badugu gaiaren ardatza osotasunean ulertzen badugu koherentzia duela testu honek esan dezakegu. Igorleak mezua koherentziaz adierazteko testua landu behar du.

—*Kohesioa*. Sintaxiarekin batera doa. Juntaturak, menderakuntzak eta testuaren joskerak kohesioa ematen diote idatzari.

—*Zuzentasuna*. Ezaugarri hori lortzeko, ortografia eta morfologia kontuan hartu behar dira. Hau da, ondo erabiltzeko hezkuntza, ezagutza gramatikala, arauen aplikazio zuzena menperatu behar da.

—*Aurkezpena*. Kaligrafiari edo tipografiari dagokiona da. Txukuntasuna, marjina eta paragrafoak kontuan hartu behar dira. Azken urteotan erabat baloratzen dira testuaren ezaugarri horiek.

—*Estilistika*. Mezuaren era da eta testu motaren arabera guztiz aldatzen da. Adibidez: eleberri batean figura erretorikorik ederrenak baita biraorik harrigarrienak ere ager daitezke, baina eskari orrietan baliabide horiek ez bide dute lekurik.

### KOMUNIKAZIOA: ZENBAIT EZAUGARRI

*Komunikazio prozesuaren elementuak baldintzaturik daudela esan dezakegu; elementu horiek eskaintzen dituen berezitasunak, besteak beste, hauexek dira:*

- *igorleak: gaitasun psikologiko eta komunikatzeko baliabidearen bidez gai izatea.*
- *hartzaileak: gaitasun psikologikoa eta ...*
- *mezuak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna, aurkezpena, estilistika.*
- *bideak: erraztasuna, ...*
- *kodeak: ulergarritasuna, ...*

*Gainera, mezuak, abozkoak zein idatzizkoak, ezaugarri batzuk betetzen ditu:*

- *Abozkoak:*

- *bat-batekoa eta adierazkortasuna ditu ezaugarri nagusi*
- *mezuan aldaketak egin daitezke hitzaldian bertan*
- *hartzailearen eta igorlearen testuingurua (tokia, unea) bera da*
- *galderak, feedbacka eta elkarrekikotasuna egiteko aukera.*


- *Idatzizkoak:*

- *mezu bera hainbat hartzailei bidal dakieke*
- *mezua bera da, testuingurua (unea, tokia) aldatzen bada ere*
- *mezua gorde dezake*
- *baina mezuak ez du feedbackik eta, behin argitaratuz gero, ez dago aldaketarik.*

## 1.7. LABURPENA.

Gai honetan azaldu diren kontzeptu nagusiak ikus daitezke hurrengo grafikoetan.

### 1.7.1 Komunikazio prozesuaren elementuak



### 1.7.2. Hizkuntz funtzioak

#### 1.7.2.1. Hizkuntz funtzioak

FUNTZIOAK	KOMUNIKAZIO PROZESUAREN ELEMENTUAK	AZALPENA
ESPRESIBOA, adierazkorra, hunkitu egiten duena	IGORLEA	Igorlearen ikuspuntua, asmoa, nekea edo ardura mezuan erakustea da.
KONATIBOA edo eragilea, agindu funtzioa	HARTZAILEA	Hartzailea zerbait egitera bultzatzen da.
POETIKOA	MEZUA	Estilo edo mezuaren era da.
FATIKOA edo euslea	BIDEA	Hedabidea edo bitartekari fisikoa da, mezua hartzaileari hurbiltzen diona.
METALINGUISTIKOA	KODEA	Hartzaileak uler ez ditzakeen zeinuen azalpenean dago.
AIPATZAILEA edo erreferentziala	ERREFERENTEA	Hitz egiten denaz.

### 1.7.2.2. Hizkuntz funtzioen adibideak


FUNTZIOAK	KOMUNIKAZIO PROZESUAREN ELEMENTUAK	ADIBIDEAK
ESPRESIBOA, adierazkorra edo hunkitzailea	IGORLEA	Ikasgelako azalpena, hitzaldiak.
KONATIBOA edo eragilea, agindu funtzioa	HARTZAILEA	Eskelak, iragarkiak, fakturak, aholkuak.
POETIKOA	MEZUA	Literatura testuak, hitz gorriak, irainak, metonimiak.
FATIKOA edo euslea	BIDEA	Testuingurutik kanpo eguraldiari buruz hitz egiten dugunean.
METALINGUISTIKOA	KODEA	Komatxoen artean adieraziaren azalpena. Hitz bat argitzen duen sinonimoa, etab.
AIPATZAILEA edo erreferentziala	ERREFERENTEA	Etxea, arbola.

### 1.7.3. Ahozko hitzaldia prestatzeko plangintza

— Hitzaldia baino lehen. ( <b>Inbentioa</b> )	1. Gaia zer den argitasunez ikusi. Gaiari buruzko informazioa bildu.
	2. Erabakiak ( <b>dispositioa</b> ): <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ testu mota: literarioa, kazetaritza testua...</li> <li>◆ diskurtso mota: deskribapena, narrazioa, argudiorako testua...</li> <li>◆ hizkuntza mota,</li> <li>◆ egitura,</li> <li>◆ ezaugarri morfosintaktikoak, lexikalak.</li> </ul>
— Egitura bera. ( <b>Elokutioa</b> )	3. Atsegin, eskuragarri egongo da igorlea, bere zarata psikologikoak baztertuz.
<p>–Aurkezpena: unea, tokia eta hartzaileak kontuan hartuz.</p> <p>–Gaiaren garapena: zuzentasunaz, kohesioaz eginez. <i>Feedbacka</i> edo atzeraelikadura erabiliz.</p> <p>–Bukaera: mezu nagusia errepikatuz.</p> <p>* Hitzaldian, galderaren bat egiten badiote hizlariari erantzuna eman baino lehen, hizlariak galderaren ardatza argi ulertu behar izango du; galdera maltzurak jasotzen dituen horien kontrako erantzunak saihestu egin behar ditu.</p>	

22

### 1.7.4. Komunikazioaren zaratak



## BIBLIOGRAFIA IRUZKINDUA

- ALBERDI, A. (1996) *Eskola gramatika*, Donostia, Elkar, 1996. 🍏 Tituluak esaten digunez, gramatika da liburuaren ardatza: komunikazio gaitasuna, perpausak, hizkuntzaren alderdi lexikala, Semantika, Fonologia eta Ortografia deritzen ikasgaiak aztertzen dira. Liburua argibideak eskuratzeko baliagarria da, batez ere DBHO-ko bigarren kurtsoan.
- ALBERDI, A. eta BALENTZIAGA, M. (1997) *Hizkuntza eta komunikazioa, 1. DBHO Batxilergoa*, Donostia, Elkar, 1997. 🍏 Testu liburu hau bi ataletan banaturik dago; lehenengoan, "Hizkuntza eta komunikazioa" eta bigarrean, "Elkarizketa testuak" gaiak ikasleei egokitzen zaizkie. Aurkibide zehatza faltan izan arren, liburuko eskemak, irudiak eta laburpenak lagungarriak dira teoria begi bistan jartzeko.
- BASTERRETXE POLO, J.I. eta GONZÁLEZ ABRISKETA, M. (1997) *Semantika eta masa-komunikazioa*, Bilbo, EHU, 1997. 🍏 Kontzeptu semiotikoen azalpen honek helburu zehatza du: semiotikaren mundua unibertsitateko ikasleengana hurbiltzea. Autoreek, komunikazioa eta semiotika uztartuz, jakintzagai horren ardatz nagusiak argi azaltzea lortzen dute. Hala ere, adierazitako zenbait kontzeptu oker omen dago.
- BATESON, G. *et alri*. (1981, frants.; 1984, gazt.) *La nueva comunicación*, Madrid, Kairós, 1994 🍏 Hartzailari igorlearen mezua bidaltzea ez dela komunikazioa diosku idazleak. Igorlea eta hartzailea gizarte batean bizi direnez kultur sistemak komunikazioaren jardueran zerikusia du; beraz, mezuen proxemika eta kinesika, besteak beste, kontuan hartu behar ditugu informazioa ulertzeko.
- CALLE, R.A. (2000) *¡Otra vez lunes! Técnicas para superar el estrés laboral*, Madrid, Ed. Oberón, 2000. 🍏 Gure lan bizimoduak sorrarazten digun estresa aztertzen du idazleak. Izan ere, lanaren ezbeharrak eta *mobbing*ak komunikazioan zerikusia dute; gai horiek aztertzeaz gain, hobeto bizitzeko aholkuak ematen dizkigu Calle-k.
- GOLEMAN, D. (1995 ingel.; 1996 gazt.) *La inteligencia emocional*, Barcelona, Kairós, 2001. 🍏 Goleman-ek gizakien sentimenduak, motibazioa, ahaleginak, enpatia, somena etab. aztertzen ditu; joera horiek, gure izaera moldatzen dutelako, kontuan hartu behar ditugula esaten digu egileak. Nonbait, gure arazo psikologikoak eta fisikoak bideratzeko emozio adimenaren bidez lor dezakegula baieztatzen du. Emozio adimenaren teoria horrekin arrakasta ugari lortu zuen Goleman-ek. Dena dela, liburuak lortutako ospea ez dut uste merezi duenik: gaiak ez daude sakonki aztertuta, azalez baino; arin aberasteko asmoz idatzita omen dago.
- IDAZLE BATZUK (1991) *Hizkuntzalaritza hiztegia*, Donostia, UZEI, 1991, bi ale. 🍏 Liburua orain dela hamar urte kaleratuta dago, baina gaur egun ere baliagarria da, batez ere bigarren alea. Liburuan bertan hizkuntzalaritzaren kontzeptuak euskaraz, ingelesez, frantsesez eta espainieraz agertzen dira.



MASLOW, A.H. (1968, ingelesez; 1972, gaztelaniaz) *El hombre autorrealizado*, Barcelona, Kairós, 1979  
 🍏 Liburu ezagun hori, gaur egun ere, irakurgarria eta lagungarria da, orain dela hogeita hamar urte idatzia izan arren. Gizakiok oinarrizko betebeharrak ase ostean gure barruko izaeraren garapenera abiatzen ginela pentsatu zuen Maslow-ek eta teoria hori oinarritzat hartuta pentsamendu-sistema osoa sortu zuen.

QUILIS, A. (1999, bigarren argitalpen berria) *Lengua española*, Madrid, Ed. Centro de Estudios R. Areces, 1999. 🍏 Komunikazioaren kontzeptu batzuk, Fonologia, Morfologia, Sintaxia eta Semantika, azaltzen ditu hizkuntzalari horrek. Unibertsitateko ikasleek, UNED-ekoek hain zuzen ere, testu liburutzat hartzen dute; izan ere, kontzeptu orokorrak argitzeko egokia da.

RENKEMA, J. (1993 ingelesez) *Introducción a los estudios del discurso*, Madrid, Gedisa, 1999. 🍏 Diskurtsoaren erak, informazioaren adierazpena, estiloaren baliabideak, idatzizko eta ahozko hizkuntza, hizkuntz egiturak eta azpiegiturak jakinarazten dizkigu idazleak. Liburuko gai batzuk adibideekin lagunduta egon arren, ulergaitzak eta teorikoegiak dira.

STEINER, C. (1974 ingel.; 1992, gazt.) *Los guiones que vivimos*, Madrid, Kairós, 1992. 🍏 Idazleak azaldutako teoria Eric Berne-ren analisi transakzioetik hartuta dago. Liburuak gizakiok gidoi baten bidez bizitza bideratzen dugula baieztatzen du; txikitatik hartzen dugu gidoiaren bat bizitzeko, baina, ez badugu eredu

onik garatzen, estutasuna, zorigaitza eta gaixotasun mota batzuk har ditzakegula esaten du Steiner-ek; bere filosofia erakargarria da; erraz irakurtzen da liburua.

TORBIDON, L. eta ZANIN, L. (1986 italieraz) *Grafología. Texto teórico práctico*, Santander, Ed. Tantín, 1991. 🍏 Grafologia ez dago hedaturik ez Batxilergoko jakintzagaietan ezta Heziketa Ziklokoetan ere. Gizarte eta kultur zerbitzuak deritzon Heziketa Zikloko arloan gai horrek lekuren bat eduki behar lukeela uste dut. Izan ere, grafologia idatzizko komunikazioa da eta pertsonaren ezaugarriren bat ezagutzeko baliagarria izan daiteke. Torbidon-en liburua aiseki irakurtzen da eta emandako azalpenak ondo ulertzen dira. Bi ataletan banaturik dago; lehenengoan, grafemen ezaugarri nagusiak (dimentsioa, zabalera, presioa, lerrokapena, makardura eta estetika), eta bigarrean, grafemen konbinaketak xehaturik daude.


WATZLAWICH, P.; HELMICK BEAVIN, J.; JACKSON P.D. (1967 ingelesez; 1981 gaztelaniaz) *Teoría de la comunicación humana*, Barcelona, Herder, 1983. 🍏 Liburuak lagunen arteko komunikazioa azaltzen du. Oinarrizko kontzeptuak argitu eta gero, komunikazio jarduerak, beraien kontraesanak eta hauekin batera sortzen diren gorputz gaixotasunak azaltzen ditu. Klasikotzat hartzen da saiakera hori, nahiz eta gaia askoz landuagoa izan gaur egun.

## IKASLEENTZAKO ARIKETAK

- 1.- Zergatik ez dago komunikazio osorik 1.2. atalean agertzen den lehenengo irudian?
  - 2.- Bigarren irudian, 1.2. atalean, komunikaziorik badago? Zergatik?
  - 3.- Gorrek Zeinu hizkuntza menperatu behar izaten dute? Zergatik?
  - 4.- Igorle bat eguraldiari buruz hitz egiten ari da hartzaile batekin Bilboko parkean. Jarduera honetan, zein ez dira komunikazio elementu nagusiak?
  - 5.- Edozein komunikazio ekintzatan al dago erreferentea?
  - 6.- Irakurri testu hau. Zer esaten digu?  
«Baziren behin bi lagun, hiri berean bizi zirenak; beren lurraldean gerra hasi zenean armadan parte hartu zuten. Guda galdu ostean, bi urte gatibu egon ziren. Urteak pasatu ahala, aske utzi zituzten eta bakoitzak bere bizitza egin zuen. Hamar urteren buruan, bat-batean, kalean topo egin eta batek besteari galdetu zion:  
– Ahaztu duzu eduki genuen kartzelarientzako gorrotoa?  
– Ezta egun batean ere; oraindik itzelezko gorrotoa diet. Eta zuk? —Esan zion besteak—.  
– Askatasuna lortzerakoan gorrotoa kartzelan utzi nuen. Beraz, aske bizi naiz orain dela hamar urte; zu, aitzitik, espetxean bizi zara oraindik.»
- CALLE, R.A. (2000) *Otra vez lunes*, Madrid, Ed. Oberon, 2000, 65. orrialdean (gaztelaniatik moldaturik)
- 7.- Goiko adibidean komunikazio ekintzak bi dira; zein? Azaldu haien elementuak.
  - 8.- Bliss-ek zeinuz osaturiko nazioarteko sistema bat asmatu zuen; baliabide hori hitz egiteko eta irakurtzeko minusbalio fisikoentzat da; kodeak ehun zeinu ditu, eta horietatik zeinu gehiago ekoizten dira zeinuen nahasketen bidez. Bliss-ek berezko morfologia eta sintaxia ditu, beraz, hizkuntza dela esan dezakegu?
  - 9.- Edozein komunikazio jarduera ez da eraginkorra. Irakurri hurrengo adibidea eta esan komunikazioaren kontrako oztopoak zein izan daitezkeen. «Amak, ustekabean kalera irten behar izan duelako, ohar bat laga dio ikastetxetik etorriko den semeari, baina etxeko txakurrak ohe azpian jarri du oharra.»
  - 10.- Igorleak, esku artean duen argazkia, deskribatu dio ondokoari; hartzaileak azalpena entzunda, deskribapenetik ulertu dituen ezaugarriekin irudiarena margotu du orri batean. Hartzaileak zein neurritan jasoko du hartutako informazioa? Argudia ezazu erantzuna.
  - 11.- Asma ezazu *feedback*ak duen komunikazio jarduera eta eman azaltzeko adibidea.
  - 12.- Lagunen arteko ahozko jardueran, funtzio metalinguistikoa sarritan erabiltzen da? Zergatik?
  - 13.- Zaratak eta erredundantziei buruzko adibideak 1.5.2. atalean daude. Aztertu zein diren zaratak eta zein erredundantziak.
  - 14.- Ikasgelako ikaskideekin eztabaida ezazu baieztapen hau: «komunikatzeko gai izatea denok behar genuke hartu xedetzat».
  - 15.- Zer dira deiktikoak? Zertara erabiltzen dira? Haiak zer gaineratzen diote komunikazioari?

## ARIKETEN ERANTZUNAK

- 1.- Ez dagoelako hartzaile ezagunik
- 2.- Gutxienez bost elementu agertzen direlako: igorlea, hartzailea, kodea, mezua eta kanala.
- 3.- Bai. Komunikazioaren beharra betetzeko.
- 4.- Erreferentea (eguraldia) eta lekua (parkea).
- 5.- Ez, bakarrik mezuaren gaia konkretua bada.
- 6.- Hunkipenak, oroitzapen gaiztoak edo kaltegarriak hobe ahaztea.
- 7.- Lehenengo jarduera: kontaktarena da eta bere elementuak testuan agertzen direnak dira. Bigarren jarduera idazle eta irakurlekiko harremanetan sortzen den komunikazioa da.
- 8.- Bai, hizkuntzak zeinuak eta bere araubideak ditu eta Bliss-ak baldintza horiek bete ditu.
- 9.- Oharra ez dago begi bistan: egoera hori zarata bat dela esan dezakegu.
- 10.- Orokorrean informazioaren % 40 galtzen da; beraz, komunikazioa eraginkorra bada mezuaren %60 hartuko dugu.
- 11.- Erantzun libre.
- 12.- Ez, funtzio metalinguistikoa gutxi erabiltzen da ahozko jardueran; egoera honetan ingurune fisikoak eta erreferenteak argitzen dute hitzaldiaren mezua.
- 13.- Zaratak hauexek dira: eguzkia, lerro kopurua, koma, aspergarria den hitzaldia, garrantzirik gabeko informazioa, galdera ikurren falta, buruko mina, ahotsaren doinua. Besteak erredundantziak dira.
- 14.- Debatearen helburua begi bistan dago; irakasleak nahi duena zera da: komunikatzeko eskubidea, denok aldarrikatu behar izatea.
- 15.- Deiktikoak solaskideei tokiak seinaltatzeko (hemen, hor...) edo enuntziazioaren uneak markatzeko (gaur, bihar...) edo pertsoneri deitzeko (hau, haiek...) erabiltzen dira. Oro har, mezuari argitasuna ematen diote.



## **2** *Komunikazioa eta hizkuntzak*

## 2. KOMUNIKAZIOA ETA HIZKUNTZAK.

### 2.1. ZEINUA, ZER DIRA?

### 2.2. HITZEZKOA EZ DEN KOMUNIKAZIOA.

### 2.3. KIZKUNTZAK ETA ZEINUA.

#### 2.3.1. Zeinu hizkuntza.

#### 2.3.2. Bliss sistema.

#### 2.3.3. KPS-a.

#### 2.3.4. PIC piktogramak.

#### 2.3.5. Premack-pezak edo fitxak.

#### 2.3.6. Rebus-en baliabide hieroglifikoak.

#### 2.3.7. Komunikatzeko beste baliabide batzuk.

## BIBLIOGRAFIA IRUZKINDUA

## IKASLEENTZAKO ARIKETAK

## ARIKETEN ERANTZUNAK

## 2.- KOMUNIKAZIOA ETA HIZKUNTZAK

Komunikazioa pertsona biren edo gehiagoren arteko harremana da: berba egitea, laztantzea, borrokatzea, begiratzea... komunikatzea da. Komunikazioan igorlearen eta hartzailearen izaera, testuingurua (lekua, unea), kodea eta kanala modu askotakoak izan daitezke. Jarduera hori ikuspuntu batzuetatik azter daiteke; izan ere, psikologiak, filosofiak, hizkuntzalaritzak, etab. komunikazioaren elementuak<sup>1</sup> aztertzen dituzte: igorlearen izaerak, mezuaren erak eta hizkuntz kodeak, besteak beste. Dena dela, komunikazioarekin harremanik estuena Semiotikari eta Semiologiari dagokie; zientzia horiek inguruko zeinuak ulertzea dute helburu. Semiotikak, hain zuzen ere, modaren gertaerak, jendaurreko ikuskizunen esangurak, kontsumoaren esanahiak eta, orokorrean, gizarteko gertaerak ikasten ditu, hots, gizakiok zer zentzu mota ematen diegun modari, jendaurreko ikuskizunei, antzerkiaren sarreraren salmentari...

Komunikazioaren hastapenak. Dirudienez, hasierako hominidoak, aurregizakiak, zaraten bitartez, hots, eginez eta gorputz-atalen mugimenduen keinuen bidez komunikatzen ziren: orroka eta jauzika adierazten zioten elkarri esan beharrezko guztia. Aurregizakiek bidalitako mezuak behar-beharrezkoak

eta konkretuak izan zirela uste da. Baina, zergatik ez zuten berba egiten haiek? Arrazoa fonazio organoetan aurkitu behar dugu: beraien mihia, laringea eta ahoa ez zeuden garaturik eta horrekin batera burmuinek ez zieten eskatzen garapen hori, oinarrizko betebeharrak osatzeko nahikoa omen baitzen berarientzat<sup>2</sup>.

Hizkuntzaren garapena pentsatzeko gaitasun komunikatiboarekin loturik dago; hau da, haien burmuina hain garaturik ez egon arren, mintzairaren ahalmenik bazuten hizkuntzaren bidez komunikazioa lortzeko eta hori gertatu zen komunikazioaren beharra sortu eta gero. Ekintza abstraktuak, kontzeptualizazioak, indukzioak eta ondorioztapenak sortu zirenean zeinu gehiago asmatu behar izan zituzten: marrazkiak izan omen ziren informazioa gordetzeko lehen ahaleginak; izan ere, Cromagnon gizakiak berba egiteko gaitasunik bazuela jakina da: zeinu berriei esker mezu luzeagoak eta konplexuagoak igortzeko eta deskodifikatzeko ahalmena eskuratu zuten. Alegia, lengoaia edo mintzaira dela medio, zeinuz osaturiko hizkuntza erabili zuten hizkeran: burmuineko mintzairaren eremuak gaur egungoak bezalakoak izan zituzten antzinakoek, beraz, hizkuntza

<sup>1</sup> Ikusi ezazu Basterretxea (1997), 27-35 or.

<sup>2</sup> Mintzaira edo lengoaia, hizkuntza eta hizkera deritzen kontzeptuak hirugarren atalean azalduta daude.

edukitzeko ahalmena zuten eta hizkera ere<sup>3</sup>. Horrela, zeinuen bidez pentsamendua sorrarazten hasi ziren, baita beraien kontzeptuak zeinuetan islatzen ere.

## 2.1. ZEINUA, ZER DIRA?


Komunikazioa ekoizteko eta jasotzeko erabiltzen ditugun baliabideak zeinuak direla esan dezakegu: semaforoak, keak, hitzak, etab. mezuren bat jakinarazten digutelako zeinuak dira. Komunikazioak, objektuen orde, zeinuz igortzen du eta zeinu horiexen bidez ulertzen dugu mezua; hots, komunikazioaren egitateak eta gertaerak berak igorri beharrean, horien ordeko zeinuak bidaltzen dira.

Zeinuak bi ataletan bana daitezke: jatorrizkoak eta artifizialak; berezkoen artean: kea, kazkabarra, etab. ditugu; horiek berez sortzen dira, ez gizakiaren eraginaren ondorioz. Zeinu artifizialak gizakiok asmatutakoak dira; adibidez: hizkuntzei dagozkienak; hiru motatakoak izan daitezke: ikonoak, indizeak eta sinboloak; hurrengo pasartean aztertuko ditugu.

<sup>3</sup> Gorrei mintzairaren eremura ez zaie doinurik heltzen, ez dute irudi akustikorik eratzeko ahalmenik, eta, horren ondorioz, ez dute hizkerarik. Ikus ezazu BARRIO, M.V. del (1988): 149-164 or. buru atzerakuntzan mintzairari buruzko gaia aztertzeko. FAJARDO, L.M. eta MOYA (1999): 59-86 or. mintzaira, burmuina eta mintzairaren gaixotasunak azalduta daude.

**Zeinu artifizialek**<sup>4</sup> objektuaren parekotasunen bat islatzen dute; hauexek dira:


- **Ikonoak** erreferentearekin edo mezuaren objektuarekin antzekotasuna du. Objektuari dagokion zeinua da eta objektua irudiaren bitartez zehazten da; adibidez, gizon baten argazkia, mapak, planoak. Irudiotan agertzen diren ikonoak KPS-ren zeinuak dira:



- **Indizeak** erakusten duen objektuarekin lotura materiala du: hatz erakusleak lekua seinalatzen du, seinalizazio geziak bidea jakinarazten digu, etab. Ondoko adibideotan agertzen diren indizeek, baliabide eta hizkuntza batzuetatik harturik, “azpian” esanhaia adierazten dute:

PIC-a

Rebus-a




- **Sinboloak** ez du zerikusirik objektuarekin; zeinu gisa erabiltzen da eta ideologia edo arau konbentzional batean oinarrituta dago. Era arbitrarioan sortzen direlako, hautagarritasuna


<sup>4</sup> Zeinuen sailkapen batzuk daude; zeinuen erreferentearekin duten loturan oinarrituta dagoen banaketa hautatu dut; Bliss sistema, Zeinu hizkuntza eta komunikatzeko beste baliabide batzuk sailkapen horren bidez errazago ikasten dira eta. Adibideok TETZCHNER (1993): 33. or. eta 224. or.

dute, bi motatakoak izanik: hizkuntzetan daudenak: hitzak, Zeinu Hizkuntzaren zeinuak... eta ez linguistikoak: logotipoak, gurutzea.

### 2.1.1. Zeinuen sailkapena:



### 2.1.2. Hizkuntz zeinuen buruzko grafikoa:




Baina zergatik hainbeste zehaztasun hizkuntz zeinuak azaltzeko? Zeinu horietako berezitasunak argi ulertzen badira, komunikazio sistema alternatiboen berezko ezaugarriak ikasterrazak direlako; hots, Johnson-en KPS-k<sup>5</sup>, Bliss-ek, etab. zeinuen bidez ekoizten dute komunikazioa, baina zeinuen aldetik ezberdintasunak nabariak dira; adibidez: KPS-ko

<sup>5</sup> JOHNSON-ek komunikaziorako piktogramen sistema asmatu zuen; gaztelaniaz eta ingelesez SPC deiturikoa, euskaraz KPS da; itzulitako akronimo honekin JOHNSON-en sistema izenpetuko dut.

zeinu batzuk ikonoak dira, beste batzuk, indizeak. Bliss-ek ikonoz gain, indizeak eta sinboloak ditu. Zeinuak doitasunez izendatuz izenzalekeria baztertuko dugu arlo honetako liburuen kontzeptuak zehatz eta argi ulertuko ditugu. Oro har, gai horretan lan egiten dutenek<sup>6</sup> hizkuntzalaritzatik hartutako zeinuen sailkapena baliatu beharrean, zeinuak izendatzeko edozein hitz ontzat ematen dute eta horrek arlo honetako saiakerak irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak dakartza.

### 2.1.3. Hizkuntz zeinuaren osagaiak:



Hau da, hizkuntz zeinua ikur bateko adierazlearen eta adieraziaren elkargoa da. Zeinua konkretua bada, adierazleaz eta adieraziaz gain, erreferentea edukiko du. Adibidez, “zuhaitz” hizkuntz zeinuak zuhaitzaren kontzeptua (adierazia), hitza eta horren irudi akustikoa (adierazleak) ditu baita erreferentea ere, (zuhaitza).

<sup>6</sup> SOTILLO-k eta TETZCHNER-ek idatzitako liburuetan zeinuen izendapena ez omen da zehatza.



Hizkuntz zeinuen berezitasunak Zeinu Hizkuntzan nabarmenak dira: zeinuen adierazlea ez da irudi akustikoa (fonema), zeinuen prestakuntzazko parametroetan eratuta dagoen irudia baizik; gorrek, zuhaitza adierazteko egiten duten zeinuaren adierazlea, prestakuntzazko parametroen eta marka adierazgarrien bidez egiten dute, adierazia zuhaitzaren kontzeptua izanik eta erreferentea zuhaitz jakin bat. Itsuek, aitzitik, ez dute erreferenterik ikusten eta zeinuaren adierazlea irudi akustikoa da.

Gai hori gehiago argitzeko asmoz hurrengo galdera egingo dugu: Zeinu Hizkuntzako hizkuntz zeinuak monemetan eta fonemetan sailkatu daude? Autoreek<sup>7</sup> Zeinu Hizkuntzak, fonemak (irudi akustikoak) eduki beharrean, prestakuntzazko parametroak dituela esaten dute. Delako parametrook nahastuz eta konbinaketen bidez morfemak (marka adierazgarriak) sorrarazten dira. Prestakuntzazko parametro nagusiak hauexek dira: esku baten edo biren mugimendua, zeinua egiteko erabiltzen den lekua, eskuen norabidea eta mugimendua, lotunea, gorputzaren goiko partea eta aurpegia; parametro horiek zeinuak ezartzen dituzte eta fonema gisa eragiten dute.

---

<sup>7</sup> *Apuntes de lingüística de la Lengua de signos española* (2000) liburuan, autoreek Zeinu hizkuntza hizkuntza berbalekin parekatzen dute.

## 2.2.HITZEZKOA EZ DEN KOMUNIKAZIOA.

Komunikazio mota bat da hitzik gabe egiten dena. Lehenengo atalean aipatu dugun bezala, berbazko ez den komunikazioa garrantzitsuagoa da hitzetan oinarritzen den komunikazioa baino.

2.2.1. Gizakiak ez du pentsatzen duen guztia esaten; pentsatzen duena ezagutzeko bere gorputz hizkuntzara jo behar da. Hori dela eta, berbarik gabeko komunikazioaren helburuetako bat intimitatea sortzea da. Pertsona batekiko atxikimendua adieraztea, berarekiko nolabaiteko intimitatea lortzeko, berbala ez den kodea erabiltzen dugu sarritan: irribarre egitea, buruaz baiezkotako mugimenduak, eskuen keinuak, ikusmen kontaktua, sorbalden norabidearen angelu zuzena eta gorputzaren aurreranzko makurdura jokaerak atxikitzailetzat hartzen ditugu. Solaskidearekiko harremanetan atzeraelikadura mimetikoak oso eraginkorrak dira; adibidez, norbaitekin elkarrizketa sakon batean murgilduta bazaude, eta hura zure interesera egokitzea nahi baduzu, imita itzazu solaskidearen keinu positiboak eta aldarte onean jarriko da. Hala ere, berbalak ez diren mezuek ez dute egia adierazten beti, ikasitakoak izan daitezke; are gehiago, politikoei eta hizkuntzalariek hitzezkoa ez den komunikazioa menperatzen badute, mezuaren sinesgarritasuna handitu egin dezakete: hitz egitean entzulearen begietara zuzenki begiratzen, distantzia

laburrera izanik, abiadura handiz esanez, etab. Beraz, hitzekoa ez den komunikazioak egia edo gezurra esan diezaguke eta sarritan biak, gezurra eta egia, batera joaten dira mezuan. Orokorrean benetakotzat hartzen dugu igorlearen mezua, baina kontraesankor mezuak bidaltzen dizkigutenean, mezuak esaten diguna aldatu edo ezabatzen dugu; hau da, aurpegiaren adierazpenak, ahots doinuak, jantziak, espazio pertsonalaren erabilerak eta bestelako hitzak esateak gezurra dela jakinarazten digu.

Giza harremanetan mezuaren interpretazio zuzena egiteko hitzekoa ez den komunikazioaren ezaugarriak ezagutzea beharrezkoa da; izan ere, komunikazioaren bigarren funtzioa kontrol sozialari dagokiona da. Funtzio hori ez da intimitatearena bezain espontaneo, pentsatuagoa eta landuagoa baizik; adibidez, maite ez dugun agintari bati irribarre egiten diogunean. Hitzekoak ez diren atzeraelikadurarik eraginkorrenak, ikusmen kontaktuaren gehitzea, irribarre egitea eta buruaren baiezko mugimenduak dira.

Hitzekoa ez den komunikazioaren hirugarren funtzioa iruzurrarena da. Egia esatea bezain garrantzitsua gerta daiteke egia gordetzea; zirrarak agertzea bezain garrantzitsua zirrarak mozorrotzea, agerpenaren eta ezkutatzearen artean igorlearen sinesgarritasuna baitago jokoan. Orokorrean, esan dezakegu komunikatzailearen jokaera gehitu egiten dela bere pertsuasio gogoia gehitzearekin batera;

gainera, hizlaria entzulearengandik zenbat eta hurbilago egon, pertsuasio handiagoa sorraraziko du hartzailengan.

2.2.2. Hitzekoa ez den komunikazioaren alderdiak, besteak beste, hauexek dira:

- kinesikak<sup>8</sup> gorputzaren jarrera, aurpegiaren adierazpena, mugimenduak, keinuak eta begirada aztertzen ditu
- paralinguistikak ahots doinua, hizkeraren erritmoa, pausaldiak eta eztula ikasten ditu
- itxura fisikoa: jantziak, orrazkera, kosmetika, etab.
- proxemika<sup>9</sup> bakoitzeko esparrua eta jendaurreko esparruen erabilera da: elkarrizketarako distantzia, aulkien banaketa, etab.
- haptika<sup>10</sup>: usaimenaren erabilera
- tresnak lan egiteko edo kirola praktikatzeko erabiltzen diren objektuak edo eramaten direnak dira.

<sup>8</sup> Ikus ezazu kinesiar buruz BATESON, G. etab. (1984): 166-197 or.


<sup>9</sup> Ikus ezazu BATESON, G. etab. (1984): 198-222 or.

<sup>10</sup> SUSKIND, P. (1985, gazt.) *El perfume*, Barcelona, Seix-Barral, 2001. Eleberri honetan haptikaren islapena ezinbestekoa da, literatura ikuspuntutik harturik izanik.

2.2.3. Goian aipatu bezala, berbazkoa ez den kodearen bidez mezu ugari ekoizten dugu, helduok batez ere. Haurrek gehiago sinesten dute berbazko mezuetan ez berbazkoetan baino. Dena dela, ikertzaileak ez daude ados erabiltzen dugun hitzezkoa ez den komunikazioaren kopuruarekin. Nonbait, elkarrizketan, debatetan, etab. bidalitako informaziotik heren bat baino gehiago hitzezkoa ez den komunikazioaren bidez azaltzen dugu. Beraz, aipatu dugun bezala, hartzaileak informazioaren %60 ulertzen du hitzezko zein hitzezkoa ez den komunikazioa kontuan hartuz.

### 2.3. HIZKUNTZAK ETA ZEINUAK.

Komunikazioaren elementuetariko bat kodea da eta zeinuz osaturiko kodeek hizkuntzak arautzen dituzte; bestela esanda, kode edo sistema baten zeinuak mezuetan ez daude nolana pilaturik, kodearen bidez zehaztuta daude, eta igorleak eta hartzaileak, kodea menperatuz gero, ulertu egiten dute. Hizkuntzetan zeinu kopurua mugaturik dago eta diskurtsoan linealtasunez agertu ohi dira; horrez gain, zeiniek hautagarritasuna eta artikulazio bikoitza dituzte ezaugarri, hurrengo eskeman ikusten dugun moduan:



Kodeen artean, hizkuntzetan daudenak erabat sistematizaturik daude: hotsak, hizkuntz kategoriak, esaldiak, hitzen adieraziak eta aldaketa lexikalak araubideekin antolatutik daude. Hizkuntza berbalen berezko osagaien artean parekotasun handia dago, baina berbalak ez diren hizkuntzek berezko zeinuak eta araubideak dituzte. Hurrengo atalean, hautabidezkoetako kode zeinuen ezaugarri batzuk azalduko ditugu.

2.3.1. **Zeinu Hizkuntza.** Hizkuntza mota bat da, sinboloz eratuta eta araubidearen bidez antolatuta; 2.1. atalean ikusi dugun bezala, hizkuntzek berezko hizkuntz zeinuak dituzte: berbalak eta ez berbalak. Hauxe da:

Sinboloak							
Hizkuntz zeinuak							
<table border="1"> <thead> <tr> <th>Berbalak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>                     – hautagarritasuna                      – linealtasuna                        – artikulazio bikoitza                 </td> <td>                     fonemak                        monemak                 </td> </tr> </tbody> </table>	Berbalak	– hautagarritasuna – linealtasuna  – artikulazio bikoitza	fonemak  monemak	<table border="1"> <thead> <tr> <th>Ordezkoak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>                     – hautagarritasun bat                      – ez dago beti linealtasuna                        – artikulazio bikoitza                 </td> <td>                     parametroak                      (fonemak)                        marka adierazgarriak                      (monemak)                 </td> </tr> </tbody> </table>	Ordezkoak	– hautagarritasun bat – ez dago beti linealtasuna  – artikulazio bikoitza	parametroak (fonemak)  marka adierazgarriak (monemak)
Berbalak							
– hautagarritasuna – linealtasuna  – artikulazio bikoitza	fonemak  monemak						
Ordezkoak							
– hautagarritasun bat – ez dago beti linealtasuna  – artikulazio bikoitza	parametroak (fonemak)  marka adierazgarriak (monemak)						
– Euskara, Greziera,...	– Zeinu hizkuntza, Bliss sistema,...						

Eskeman ikusi dugunez, zeinu berbalak linealtasunez agertu ohi dira diskurtsoan; baina, ordezkoek ez dute linealtasunik, ez direlako bata bestearen atzetik egiten beti. Baina, zer da linealtasuna? Linealtasuna hizkuntz zeinuen duten ezaugarri bat da: bata bestearen segidan agertzen direlako eta ez dutelako aldiberekotasunik: fonemak, grafiak, monemak, hitzak eta esaldiak katea gisa ekoizten baitira. Zeinu Hizkuntzako prestakuntzazko parametro batzuk aldiberekotasunez egiten dira, zenbait zeinu mota batera gertatzen direlako.



IRUDIA SOTILLO, M. (1993) *Sistemas alternativos de comunicación*, Madrid, Trotta, 1993, 102. orrialdean.

Adibidean, gizonak bi esku erabiltzen ditu aldi berean; eskuin eskuak aldiberekotasunaz jakinarazten diguna zera da:

- ◆ pertsona bat dagoela
- ◆ bera eserita dagoela eta
- ◆ autoaren lehenengo partean eserita, hain zuzen ere.

Zeinu Hizkuntzaz saiakerak irakurtzen ditugunean fonema edo monema hitzik ez dago hitzaren ordezkari «prestakuntzazko parametro» sintagma ikusten dugu sarritan. Zer da prestakuntzazko parametroa? Sintagma horrek Zeinu Hizkuntzako zeinurik osagaienatariko bat adierazten du; izan ere, Zeinu Hizkuntzak dituen zeinuak prestakuntzazko parametroz osaturik daude<sup>12</sup> eta haiek zeinuen

<sup>12</sup> ASKOREN ARTEAN (2000) *Apuntes de lingüística de la Lengua de signos española*, Madrid, CNSE, 2000, 53. or. María SOTILLO-k, aipatutako liburuan, parametroak bost direla esaten du: eskuaren egitura, lekua, mugimendua, norabidea eta aurpegiaren adierazpenak.

artikulazioa egiten dute. Prestakuntzazko parametroak hauexek dira:

1. **Eskuaren** edo eskuen egitura.
2. Eskuaren **norabidea**.
3. Zeinua egiten den esparru fisikoa, **lekua**.
4. Besoaren luzerari dagokion **planoa**.
5. **Lotunea** edo gorputzaren ondoan dauden eskuaren alderdirik garrantzitsuenak.
6. **Mugimendua**: hatzak, eskuak, besoak, aurpegia eta gorputzaren mugimenduak.
7. Eskurik gabeko parametroa: aurpegiaren eta gorputzaren adierazpenak.

Adibidez: “interesgarria” deritzon zeinuak eta “inoiz ez” zeinuak eskuaren egitura bera dute, baina artikulazioaren lekua, norabidea, planoa, mugimendua, lotunea eta esku gabeko parametroa bereizgarriak dira. Beste adibide bat: “luxua” eta “gizalegetasuna” zeinuek lotunea eta eskuaren egitura bera dute, baina lekuak, norabideak, mugimenduak, planoak eta eskurik gabeko parametroak ezberdinak dira.<sup>13</sup>

Zeinu Hizkuntzaren zeinuek gramatika berezia osatzen dute; morfologia, sintaxia eta semantika dituzte, baina fonologiarik ez dutenez, prestakuntzazko parametroak Kerologiak ikasten ditu; Kerologiak betetzen du esparru hori.

2.3.1.1. Zeinu Hizkuntza, gaztelania eta euskara. Zeinu Hizkuntza ez da gaztelania ezta euskara ere. Estatuan erabiltzen dena, EZH<sup>14</sup> deritzona, beste

hizkuntza mota bat da, bere morfologia, sintaxia eta semantika dituen. EZH-k ez du aldakuntzarik Estatuko Erkidego Autonomoen artean; antza denez, Kataluniako EZH-k jatorrizko hizkuntzatik zenbait berezitasun hartzen ditu; hala ere, gaia ez dago ondo azterturik, eta euskaraz bizi diren ume gorrek litekeena da esaldien ordenaren aldetik euskararen eragina izatea.

Gure Autonomia Erkidegoan ofizialki dauden bi hizkuntzez gain, pertsona gorrek EZH-a erabiltzen dute; eta ahoskatzeko bigarren hizkuntza gisa espainiera edo euskara aukeratzen dute.

Bestalde, ez dago nazioarteko Zeinu Hizkuntzarik eta nazioarteko bilkuretan, etab. Zeinu Hizkuntza amerikarra ameslan-a erabiltzen da; kode hori ez da Zeinu Hizkuntza ingelesa, bien arteko ezberdintasunak nabarmenak baitira. Adibidez:



aita

Zeinu Hizkuntza  
amerikarra



aita

Zeinu Hizkuntza  
ingelesa

2.3.1.2. Zeinu Hizkuntzaren morfologia eta sintaxia. EZH-ren morfologiak monemak ditu eta, beraien bidez,

IRUDIA SOTILLO (1993): 94 or. moldaturik.



interesgarria



inoiz ez



luxua



begirunea


<sup>13</sup> ASKOREN ARTEAN (2000): 47. or.

<sup>14</sup> Espainako Zeinu Hizkuntza gaztelaniaz LSE, euskaraz EZH da.

hizkuntz kategoriak: denbora, aspektua, gramatikazko numeroa, generoa, etab. Dena dela, monema horiek ez dira gaztelaniaz edo euskaraz daudenak bezalakoak, Zeinu Hizkuntzako monemek berezko ezaugarriak dituzte eta adituek “marka adierazgarri” izena ematen diete, Zeinu Hizkuntzaren nolakotasunak argiago adierazteko eta Zeinu Hizkuntzak dituen berezko osagarriak ez iluntzeko edo ezabatzeko.

Sintaxiaren aldetik, subjektuaren eta objektuaren aditz monemak marka adierazgarrien eta prestakuntzako parametroen bidez egiten dituzte erabiltzaileek. Esaldien ordenari dagokionez, galderazko esaldietan galdetzailea azken sintagman agertzen da; halaber, ezeztapenean ez dago aditzaren aurrean, aditzaren ondoren baizik. Hau da, gorputzaren eta aurpegiaren adierazpenak adierazleak dira, kerologiak aztertutakoak; adibidez, galderazko esaldiak egiteko igorleak bekainak igotzen ditu, baina adierazpenazko perpausetan ez du aurpegiaren keinu hori egiten; perpaus motak aurpegiaren adierazpenek ezberdintzen dituzte.

Aditzaren zeinua egiteko, esku biak elkartuz eta mugimendu zehatz baten bidez adierazten da:



Prestakuntzako parametroak ez dira eskuez egiten beti, superlatiboa edo aditzondoak adierazteko eskurik gabeko parametroak erabiltzen dira.

Laburbilduz, lan honetan ikusi ditugun Zeinu Hizkuntzaren adibideen arabera Zeinu Hizkuntza sistema edo kodea dela esan dezakegu eta kode horretako erabiltzaileek, hots, buru urrituen hezitzaileek, gorren maisuek, eta zaintzaileek ondo menperatu behar dute gorrekin komunikazioa lortzeko, baita horien pentsamenduaren adieraziak lantzeko. Hezitzaileen prestakuntza funtsezkoa da, baina kontua ez da bakarrik Zeinu Hizkuntza irakastea edo ikastea, honez gain, entzumen urritasuna dutenek ikaskuntza berezia behar izatea baizik, eta horretarako ikastetxeetan gortasunaren munduarekiko ulermena sortu behar da.

Gorren psikologia eta EZH-a Zeinu Hizkuntza zikloan aztertzen dira. Gizarte Integrazioaren zikloan Zeinu Hizkuntza komunikatzeko baliabideen artean gaingiroki ikasten da.

### 2.3.2. Bliss sistema

**Bliss sistema** hizkuntza mota bat da, hizkerarik gabekoek, buru paralisidunek edo hitz egiteko oztopoak dituztenek ikasten dutena; baina adimena behar dute zeinu horiez baliatzeko, Bliss-en zenbait zeinu zailak dira eta. Kode hori munduan zehar hedatuta egon arren, guraso batzuek bere erabilpenaren onurak ezagutzen ez dituztelako Bliss-en taula baztertu egiten diete buru urrituei eta terapeutarengana doazenean baino ez diete taula hori eramaten.

2.3.2.1. Bliss deritzon hizkuntza Karl Blitz-ek asmatua zuen (Austrian 1897an jaioa). Gizon hori 1938an, Hitler-ek Austria indarrez hartu zuenean, lan eremu batean egon zen; han hizkuntza ezberdinak erabiltzeko sortzen ziren komunikazio arazoak ezaguera izateko aukera eduki zuen. Askatasuna lortu ondoren Ingalaterrara joan, izena aldatu eta handik aurrera Charles Bliss izan zen; gero, Shangain, idazkera ideografikoa –txinera– ezagutu zuen, eta 1942an bere izeneko hizkuntzaren lehenengo zeinuak asmatu zituen. Gai horretaz lehenengo liburua Australian kaleratu zuen, 1949an. Ontarioko zentro batean Bliss-en zeinuak erabiltzen hasi zirenean nazioarteko ospea lortu zuen.

2.3.2.2. Nolakoa da Bliss sistema? Hizkuntza hori 100 zeinuz osaturik dago, eta adieraziak irudikatzen ikonoak, indizeak eta sinboloak erabiltzen dira idatzizko hitzekin batera<sup>17</sup>.

Sistema horretan ditugun zeinu motak hiru dira gutxienez:

- ◆ Ikonoak erreferentearekin lotura handia duten zeinuak dira. Adibidez:



<sup>17</sup> Bliss-en zeinuak ez dira beti sinboloak; ikonoak, indizeak eta sinboloak eraturik dago.

IRUDIA SOTILLO (1993): 51 or. moldaturik.

- ◆ Indizeak erreferentearekin zenbait parekotasun ditu. Zeinua adieraziaren iradokitzailea da, baina zeharka. Adibidez:



19

- ◆ Sinboloak hautatuak dira eta ez dute erlaziorik erreferentearekin. Adibidez:



eman + dirua + iraganaren marka = ordaindu zuen<sup>20</sup>

Jatorria kontuan hartuz, zeinuak nazioartekoak (batuketarena, ...), Bliss-en berezkoak (artikulua, ...) eta beste hizkuntza batzuetatik hartutakoak dira. Eta osaketari dagokionez, zeinuak bakunak eta elkartuak dira Bliss hizkuntzan:

jatorrizkoa		osaketa	
nazioartekoak	Bliss-en berezkoak	zeinu bakunak	zeinu elkartuak
(batuketa)	(-a, artikulua)	(sentimendua)	linealtasuna dutenak (telebista)
(zatiketa)	(bat)	(kontrakoa)	gainezarriak (ama)

21

<sup>19</sup> SOTILLO (1993): 51 or. moldaturik.

<sup>20</sup> TETZCHNER (1993): 28 or. Bliss zeinua da.

<sup>21</sup> TETZCHNER (1993): 29 or. eta SOTILLO (1993): 52 or.



Bliss-en jatorrizko zeinuk zeinetan bertan dituzten adierazleen bitartez azaltzen dituzte adieraziak; hona hemen adierazleak.

1. Zeinuen neurria:



2. Zeinuen kokapena:




3. Helbidea:



4. Zeinuen arteko esparru fisikoa:



5. Ikurra:




6. Lekuaren agerbideak:



7. Zenbakiak:



Ikusitako adierazle horiekin ez dago guztiz eraturik Bliss-en gramatika eta hizkuntza osatzeko irudiak, seinaleak, eta beste marka batzuk zeinuei erantzen zaizkie. Adibidez, aditzetan erabiltzen diren marka adierazgarriak, besteak beste, hauexek dira:



Sintaxiari dagokionez, Bliss-sistemak berezko sintaxia duen arren, erabiltzaileak lurraldeko hizkuntzaren sintaxia hartu ohi du; horrela, ingurukoekin komunikazioa errazten da.

IRUDIAK SOTILLO (1993): 53-54 or.




Bliss-en zeinuak salgai daude dendetan bai fitxetan, bai eranskailuetan (2,5 x 2,5 zm). Erabiltzaileak taulan dituen zeinuak seinatuz esan nahi duena adierazten du, baina taularen neurriak eta zenbait adierazleren falta oztopoak izaten dira. Taula erabiltzeko irakurtzen dakitenek, zeinuarekin batera hitza idatzita dagoenez, hitz bera markatuz adierazia eman dezakete zuzenean.

### 2.3.3. KPS

Komunikatzeko piktogramen sistema ez da hizkuntza bat, irudikatutako ikonoek eta hizkuntz zeinuek ez dituztelako hizkuntzaren ezaugarri guztiak osatzen; honez gain, ez du sintaxirik eta, morfologiaren aldetik, bakarrik oinarrizko kategoriak eta monemak ditu. Hala ere, haren zeinuak guztiz argiak dira, eta Estatuan hedaturik dago adimen urrikortasuna dutenen edo komunikazio ahalmena murriztuta dutenen artean, irakurtzen eta hitz egiten ikasteko. Umeek, helduek eta adin guztietako pertsonak erabil dezakete komunikazioa errazteko eta Erkidegoko hizkuntzara egoki dezakete zailtasunik gabe.

2.3.3.1. Roxana Mayer Johnson-ek 1981ean KPS-a (Komunikatzeko Piktogramen Sistema) asmatu zuen. Hasieran 300 zeinu irudikatu zituen eta, 1988an, 1500 zeinu berri gehiagorekin hiztegi laguntzaile bat argitaratu zuen. Zeinuak hitzekin lagunduta daude.

KPS-ren fitxak eta materialak salgai daude gaur egun; hala ere, erabiltzailearen beharren arabera fitxa horiek eskuz egin daitezke zeinuen zabalera eta luzera kontuan hartuz. Hona hemen KPS-ren irudi batzuk:



2.3.3.2. KPS-ren zeinuei sinboloak esaten zaie, baina hizkuntzalaritzari dagokionez zehaztasun falta dago adierazle hauetan. Beraz, eta argitzeko asmoz, KPS-ren zeinuak hiru motatakoak direla esango dugu aurreko adibidean ikusi dugun moduan:

- ◆ **ikonoek** erreferentea argi islatzen dute; horietako irudiak guztiz argiak dira eta hitzekin lagunduta daude
- ◆ **indizeak**

- ◆ **hizkuntz zeinuek** adierazi abstraktuak dituzte, ez dute irudirik, ezta erreferenterik ere; idatzizko hitzak baino ez dira agertzen.

Morfologian, hizkuntz kategoriak markatzeko koloreak erabiltzen dira: aditzak berdeak dira, izenak laranja, izenondoak urdinak, etab. Horrela, esaldien egitura errazten da. Kode horrek ez du sintaxirik, baina Erkidego Autonomoetan jatorrizko hizkuntzaren sintaxiaren bidez bete daiteke hutsune hau. Komunikatzeko baliabide horren lehentasuna komunikazioa erraztea da, horregatik deklinabiderik gabeko sintagmak, markarik gabeko esaldiak, etab. erabiltzen dira. Adibidez:



### 2.3.4. PIC piktogramak

Horietako irudiek ez dute hizkuntzarik osatzen: fitxetan irudikatutako ikonoak beste sistema batzuen zeinuekin osa daitezke. Sistema horrek ez du berezko morfologiarik edo sintaxirik eta lurraldeko jatorrizko hizkuntzaren bidez betetzen dira hutsune horiek.

2.3.4.1. Maharaj-ek, 1980an, asmatu zuen komunikazio bide hori Kanadan. Hantxe bertan, Suedian

eta Norwegian guztiz ezagunak dira PIC piktogramak. Ikasketa prozesuan arazoak dituztenentzat baliagarriak dira. Salgai dauden piktogrametan irudiarekin dagoen hitza ez dago gaztelaniara edo euskarara itzulita beraz ez dira erabiltzen, ez Euskal Herrian, ez Estatuan. PIC piktogramen fitxek ez dute eragozpenik egiteko eta hezitzaileek egin ditzakete, buru urritasunai begira zeinuen neurriak egokituz.

2.3.4.2. PIC piktograma gehienak ikonoak dira, baina erreferentearekin lotura ez dutenak indizeak dira. Fitxa beltzetan, ikonoak eta indizeak, hitzekin lagunduta, zuriz daude irudikatuta.



Jatorrizko piktogramak 563 dira; PIC baliabidean hitz berriak eratzeko ez omen da batere erraza; esaldiak egiterakoan ere zailtasunak sortzen dira;

IRUDIA SOTILLO (1993): 66or.

IRUDIA TETZCHNER (1993): 32. or.



sagarra



platanoa



gaileta



gozokia



semola



patata frijituak

42



neska



hartu



utz ezazu barruan



jan



...?



eta

dena dela, sistema hori guztiz malgua da eta esaldiak betetzeko edozein mailegu onartzen du.

### 2.3.5. Premack-pezak edo fitxak<sup>27</sup>

Zeinu horiek egurrezko edo plastikozko material euskarri dute, horregatik pezak edo objektuak direla esaten dugu. Adimen urriko pertsoneri eta autistei irakasteko erabiltzen da komunikazio mota hori. Ikertzaileen asmoa tximinoei hizkuntza irakastea izan zen, tximinoek hitz egiteko gai zirela frogatu nahi izan zuten ikertzaileek eta erreferentearekin parekotasunik gabeko plastikozko edo egurrezko pezak egin zituzten. Gero, Britainia Handian eta Estatu Batuetan erabiltzaileak eduki ditu Premack sistemak. Komunikatzeko baliabide hori ez da hizkuntza, nahiz eta adieraziak eta morfologiaren ezaugarri batzuk eduki.

2.3.5.1. Premack-ek komunikatzeko hautabidezko baliabidea asmatu zuen hasieran zeinuz osaturik baino ez zegoen. Gero, Carrier-ek sistemaren morfologia osatu zuen, erabilpena hedatuz. Deich-ek eta Hodges-ek, 1977an, beste peza batzuk irudikatu zituzten. Hona hemen pezen irudi batzuk:

2.3.5.2. Peza horiek ez dira zeinuak, objektuak baizik, eta eskuz mugi daitezke. Beraien adierazleak materialak dira eta indizioek parekotasunaren bat gordetzen dute egurrezko edo plastikozko objektu horiek: gaileta adibidez.

<sup>27</sup> Premack-en pezak objektu txikiak dira; ez dira fitxak; hautabidezko baliabide hori euzkaraz izendatzeko peza adierazlea erabiliko dugu.

IRUDIAK TETZCHNER (1993): 34. or.

### 2.3.6. Rebus-en baliabide hieroglifikoa

Woodcock-ek, Clarck-ek eta Davies-ek 1969an asmatu zuten; adimen atzerakuntza arina dutenei irakurtzen ikasteko erabili zuten; gaur egun, hautabidezko komunikaziora hedatuta dago. Lurraldeko hizkuntzarekin batera egiten da, baina Norvegian eta Espainian ez dago egokiturik eta, beraz, ez da erabiltzen, irakurtzeko baliabide ona izan arren. Hona hemen adibide batzuk:

Ikono bakunak:



jan





gainean



gauza

Ikono elkartuak:

gatelays  
kaleko farola

egin

Letrez konposaturik:

skatt  
altxorra

nekatuta



lehengusua


Rebus-ek 950 zeinu ditu, gehienak ikonoak izanik. Ikonoen adieraziak letrekin gehitzen dira eta horrela hitz berriak osatzen dira. Erabiltzaileek ondo ahoskatu behar dituzte letrak, doinuen konbinaketek adierazia aldatzen dute eta.

### 2.3.7. Komunikatzeko beste baliabide batzuk

Hautabidezko komunikazioan sistema ugari daude, Lexigramak eta Sigsym-a, besteak beste.

IRUDIA TETZCHNER (1993): 36. or.

◆ **Lexigramak** bederatzi zeinu dira eta haien arteko konbinaketan bidez adieraziak jakinarazten dizkigute. Sinbolo horiek ez dute zerikusirik erreferentearekin, Premack-pezek bezala. Estatu Batuetan hizkuntz saiakuntzaren arloan erabiltzen dituzte ikertzaileek.




komuna autoa zikina arto xigortua




patata frijituak txokolatea gaileta txikleak

◆ **Sigsym-a** ez da hizkuntza, horren irudiak ikonoak eta Zeinu Hizkuntzatik hartutako egiturak dira. Sigsym-a zeinuak lurraldeko EZHarekin batera egokitzen dira. Britania Handian erabiltzen diren Sigsym zeinuen ez dute parekotasunik Estatu Batuetan dituztenekin. Zeinu Hizkuntza ikasten dutenek idatzizko hizkuntza giza erabiltzen dute.



beldurti gero zertara gaiztoa



jolastu pentsatu hasi

**Laburpena.** Gai honetan ikusi ditugun zenbait zeinu elkarrekin ikus daitezke hurrengo eskeman:

GOIKO IRUDIAK TETZCHNER (1993): 38 eta 39 or.  
BEHEKO IRUDIA SOTILLO (1993): 46 or.

	Bliss-a	Rebus-a	PIC-a	KPS-a	Sigsym-a
<b>Autoa</b>					
<b>Hotza</b>					
<b>Etorri</b>					



## BIBLIOGRAFIA IRUZKINDUA

BARRIO, M.V. del (1988) *El lenguaje y sus*

*perturbaciones*, Valencia, Promo- libro, 1988.

Mintzairari buruzko arazoak azaltzen ditu liburuak: mintzairaren filogenia, mintzaira arrunta eta dagokion garapena, afasia, hipoakusia, dislexia, autisten hizkuntza, adimen urriko umeen hizkuntza, dislalia eta disfemia, besteak beste. Azalpenak argiak dira eta gai horietaz ezagupen orokorra edukitzeko baliagarria da. Bibliografia atalak zehaztasunak ematen dizkigu.

BASTERRETXEA POLO, J.I. (1997) *Komunikazioaren eta informazioaren oinarriak*, Bilbo, EHU, 1997.

Giza komunikazio hastapenak argitzeko Kazetaritza deritzon ikasketan eta Heziketa Zikloetan irakurri ohi da liburua. "Giza komunikazioaren oinarriko egitura linguistikoa" deritzon atalean Saussure-n, Barthes-en eta Jakobson-en komunikazio kontzeptuak argi azalduta daude.

DÍEZ DE PRADO, eta BESTE BATZUK (1999) *Zeinulengoaia eskuliburua. I. Haur Hezkuntza; II. Lehen zikloa*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, 1999, 2 liburukitan.

Zeinu Hizkuntzaren hiztegiak dira bi liburu horiek; bata, haurrentzat eta, bestea, Haur Hezkuntza ikasten dutenentzat. Oso lan garrantzitsua egin zuten idazleek Zeinu Hizkuntzako hiztegia

bi eskuliburuetan laburbilduz eta egokituz.

Gortasunaren errealitatea ezagutzen ez duten irakasleentzat liburueta irudiak dira.

Egileen arabera, erreferentearen eta zeinuaren arteko erlazioak beharrezkoak dira hiru eragiketa psikolinguistikoak ezartzeko, hots, testuinguruan kokatzeko, egituratzeko eta testualizatzeko.

FAJARDO, L.A. eta MOYA, C. (1999) *Fundamentos neuropsicológicos del lenguaje*, Salamanca, Ed. Universidad de Salamanca, 1999.

Lehenengo atalean neurolinguistikaren hastapenak eta garapenak aztertzen ditu liburuak; hurrengoan, pentsamendu eta mintzairaren harremanak: mintzaira, pentsamendua eta burmuina, kontzeptuak sorrarazteko prozesua, mintzairaren neurofisiopatologia, etab.

FERNÁNDEZ GONZÁLEZ, C. (1997) *Auxiliar cuidador. Temario y test*, Madrid, Mad, 1997.

"Zaintzaile laguntzailea" deritzon oposizioa bideratzeko oinarriko egitaraua aztertzen du liburuak; entzumenezko urritasun ertaina edo sakona duten hurrei buruzko gaiak batez ere: haur horietako ezaugarriak (7. gaian), itsuen arazo nabarmenak (6. gaian), hezkuntza berezia (4. gaian), etab. Hobeto ulertzeko testak, irudiak eta marrazkiak ditu liburuak.

HARANBURU OIHARBIDE, M. eta PLAZAOLA REZOLA, M. (2000) *Komunikazioaren psikologia*, Bilbo, EHU, 2000.

Idazleek, irakurgarria den liburu honetan, komunikazioaren teoriaren ereduak, komunikazioaren iker eremua, eredu sistemikoa, komunikazio analogikoa eta grafologiaren oinarriak aztertzen dituzte. “Watzlawick-en teoria” eta “Ez berbazko komunikazioaren alderdiak” atalak landuak eta ulertterazak dira.

ASKOREN ARTEAN (2000) *Apuntes de Lingüística de la Lengua de signos española*, Madrid, CNSE, 2000.

Liburuak Zeinu Hizkuntzari buruzko artikulua ditu: EZH-ren egitura, hizkuntz ezagupenak, nazioarteko Zeinu Hizkuntza, EZH idazteko erak, etab.; horiez gain, EZH-ren fonologia edo kerologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa aztertzen dituzte, baina gaingiroki. Nonbait, idazleek Zeinu Hizkuntza hizkuntza berbalekin parekatu nahi dute eta Hizkuntzalaritzari begira ez dute koherentziarik egindako parekotasuna; gainera, erabilitako hizkuntz terminologiak nahasketa nabarmenak ditu, adibidez:” Aspectos gramaticales de la LSE” deritzon atalean. Nire ustez, Zeinu Hizkuntzaren gramatika berezko ezaugarriekin azaltzea askoz zehatzagoa litzateke hizkuntza berbalen ezaugarriekin baino.

LLEIXÁ, T. eta BESTE BATZUK (2000) *Haur-hezkuntza 0-tik 6 urtera*, Bilbo, EHU, 2000.  
Haur Hezkuntza irakasten eta ikasten dutenentzat

egokituta dago. Hiru liburutan banaturik dago ikerketa; lehenengoan, “Norberaren eta ingurunearen ezagutza” aztertzen da; bigarrean, “Adierazpena eta komunikazioa” eta hirugarren liburuan, “Eskola-antolamendua” gaia. Hiruretatik bigarren liburua da gehien interesatzen zaiguna; horretan, “Ahozko hizkuntza eta idatzizko hizkuntza haur-hezkuntzan” atalean, Cecilia Romea Castrok haurren komunikazio gaitasunen garapena eta familiako hizkuntzaren erabilera aztertzen ditu.

SOTILLO, M. eta BESTE BATZUK (1993) *Sistemas alternativos de comunicación*, Madrid, Trotta, 1993.  
Gai horretan baliagarria da liburua; berbalak ez diren hizkuntzak (Zeinu Hizkuntza eta Bliss sistema) eta komunikazio baliabideen oinarriko ezaugarriak zehazki azaltzen ditu. Komunikatzeko baliabide teknikoek buruzko gaiak gainetik adierazten dira. SOTILLO-k idatzitako liburua TETZCHENER-ek egindakoarekin osatzen da. Irakurtzeko erraza ez bada ere, astiro lantzea merezi du.

TETZCHNER, S. eta MARTINSEN, H. (1991 norveg.; 1993 gazt.) *Introducción a la enseñanza de signos y el uso de ayudas técnicas para la comunicación*, Madrid, Visor, 1993.

Liburua norvegieraz idatzita dago eta horren itzulpena ez omen da oso egokia; zenbait esapide eta esaldi ez daude duintasunez itzulita; ez dago

zehaztasunik hizkuntz izendapenetan; sinboloak, ikonoak, piktogramak deritzen zeinuak eta beste adierazle batzuk koherentziarik gabe itzulita daude eta irakurmena eragozten dute. Sarritan gai horietako saiakeretan hizkuntza zehaztasunik gabe erabiltzen da. Norvegiako buru urrituen egoera islatzen dute autoreek eta emandako aholkuak edo islatzen dituzten egoerak gure lurraldean martxan jartzeko egokitu egin behar dira. Hala ere, oso liburu atsegina eta lagungarria da, bihotzez idatzita dago, autistekin edo adimen urrikoekin egoten direnentzat baliagarria da baita urritasun fisikoekin edo psikikoekin lan egin behar dutenentzat ere. Liburuak Zeinu Hizkuntza, Bliss-a, PIK piktogramak, KPS-a, Premack pezak, Rebus-en baliabide hieroglifikoa, etab. azaltzen ditu. “Ayudas técnicas para la comunicación” kapitulua ez dago sakonki landuta eta atzeratuta dago. Hala ere, idazleek ezgaituen egoera gizarteratzea lortu dute.

## IKASLEENTZAKO ARIKETAK

1. Bigarren gaiaren hasieran baieztapen hau agertzen da: “Komunikazioa pertsona bi edo gehiagoren arteko harremana da: berba egitea, laztantzea, borrokatzea, begiratzea... komunikatzea da”, baina, zein motatako elementuak behar dira komunikazioa lortzeko?
2. Hasierako hominidoek ez zuten berba egiten, zergatik?
3. Sinboloak hautagarriak dira edozein hizkuntzatan?
4. Zer ezberdintasun dago indizio eta indizeen artean?
5. Nola deitzen diegu unitate horiei: /t/, /a/, /u/, /l/, /k/?
6. “Maitasun” hitzak edozein hitzek bezala adierazia eta adierazlea ditu? Eta erreferenterik?
7. Idatzizko eta ahozko jarduerak ezberdinak dira edozein testuingurutan?
8. Hitzekoa ez den komunikazioan gezurrak esan daitezke?
9. Ikaskideen artean, hitzekoa ez den komunikazioaren bidez egiten dituzten mezurik arruntenak zeintzuk dira?
10. Kontuan hartzen dituzu kinesika, proxemika eta haptika hitzekoa ez den komunikazioan?
11. Berbazko ez den komunikazioaren bidez autistek mezuak ekoizten dituzte?
12. Zeinu Hizkuntza berbala da?
13. Zer dira prestakuntzako parametroak eta zein hizkuntzatan erabiltzen dira?
14. Gure Erkidego Autonomoan gorrek Zeinu Hizkuntza erabiltzeaz gain, bigarren hizkuntzarik dute?
15. Zeinu Hizkuntza menperatzeko ikasi egin behar da?
16. Bliss-a hizkuntza da?
17. Zenbat zeinu dituzte Bliss-ek, KPS-ek, PIC-ek eta Rebus-ek?
18. Istripu batengatik edo gaixotasun baten ondorioz komunikaziorako ahalmena murriztuta dutenek oztopo berak aurkitzen dituzte komunikatzeko?
19. Nork erabiltzen du KPS deritzon komunikatzeko piktogramen sistema?
20. Adimen atzerakuntza arina dutenek irakurtzen irakasteko Rebus-en baliabidea erabiltzen dute?
21. Lexigramak eta Sigsym zeinuak ikonoak dira?
22. Sigsym komunikatzeko baliabidea hizkuntza da?



## ARIKETEN ERANTZUNAK

1. Igorlea, hartzailea, mezua, kanala eta kodea. Horiez gain, erreferentea eta lekua ager daitezke.
2. Arrazoia fonazio organoetan aurkitu behar dugu; hasierako hominidoek mihia, laringea eta ahoa ez zituzten garaturik eta honekin batera, burmuinek ez zieten eskatzen garapen hori. Izan ere, oinarrizko betebeharrak osatzeko nahikoa omen zen orroez eta zaratez baliatzea.
3. Bai, hautagarritasuna dute, baina ez dute zerikusirik erreferentearekin.
4. Indizioak jatorrizko zeinuak dira; berez sortzen dira, gizakiaren eraginik gabe: kea, kazkabarra, etab. Indizeak gizakiok egiten ditugu: seinalizazioak adibidez, eta objektuarekin lotura materiala dute.
5. Fonemak dira; marratxoan artean idatzita daude eta.
6. Bai. Ez
7. Bai.
8. Bai; berbalak ez diren mezuak ikasitakoak izan daitezke.
9. Erantzun librea.
10. Erantzun librea.
11. Bai, haiek ez dute hitz egin nahi; beraz, hitzezkoa ez den hizkuntzaren bidez mezu ugari ekoizten dituzte.
12. Ez. Hizkuntza izan arren, ez da hizkuntza berbala.
13. Ikus ezazu erantzuna 2.3.1. atalean.
14. Bai, haiek EZH-a ahoskatzeko bigarren hizkuntza gisa gaztelania edo euskara hartzen dute.
15. Bai, hizkuntza da eta ez da keinuz osaturikoa, hizkuntz zeinuekin baizik.
16. Ikus ezazu erantzuna 2.3.2. atalean.
17. Bliss-ek ehun zeinu ditu; KPS-ek, 1800; PIC piktogramak, 563; Rebus sistemak, 950 ditu.
18. Ez, jarduerak lagunaren arabera edo gaixotasunaren arabera guztiz ezberdinak dira.
19. Batez ere, adimen urriko umeekin erabiltzen da, irakurtzen eta hitz egiten irakasteko.
20. Bai, baina ez Norvegian ezta Espainian ere
21. Ez. Lexigramek ez dute zerikusirik erreferentearekin, baina Sigsym-en zeinu batzuk ikonoak dira.
22. Ez.



**/// Eranskina: hiztegiak**

3.1. HIZTEGI IRUZKINDUA

3.2. GAZTELERA EUSKARA HIZTEGIA.

### III. ERANSKINA

#### 3.1. HIZTEGIA IRUZKINDUA

##### ADIERAZI(A):

Zeinuaren kontzeptua edo irudi psikikoa da, burmuinean duguna. Adibidez: buruan "zuhaitz" kontzeptua edo adierazia dugu eta adierazlearen bidez helarazten dugu. Adierazlerik gabeko adierazia komunikazina da eta horregatik, gorrentzat eta adimen urriko pertsonentzat Zeinu Hizkuntzak, eta komunikatzeko beste baliabide batzuek (Bliss sistemak, etab.) dituzten adierazleak guztiz lagungarriak dira adieraziak sorrarazteko.

##### ADIERAZLE(A):

Hizkuntz zeinuaren alderdi bat da, kontzeptua adierazten duena. Adibidez, "zuhaitz" adierazia 'zuhaitz' hitzaren bidez esaten dugu burmuinean dugulako; adierazlea zeinuaren alderdi materiala (hitza) eta horren irudi akustikoa da. Beraz, burmuinean ez badago adierazlerik, ezin da kontzepturik adierazi.

##### ADIMEN URRIKO PERTSONA:

Burmuinean kalteren bat edukitzearen ondorioz elbarritasun fisikoa edo psikikoa edo biak batera jasaten dituen pertsona da; burmuinean kaltea dutenen artekoan gaixotasun mailak ugariak dira: Down sindromea, garun paralitikoa, etab.

##### AFASIA:

Gaixotasun mota bat da, mintzaira deritzon burmuineko eremuan dagoena; mintzairaren nahastea da, idatzizko edo ahozko hizkeran agertzen dena. Larria bada, mututasun iragankorra sor daiteke.

##### AIPATZAILE(A), funtzio aipatzaile(a) edo erreferentziala:

Erreferentearekin batera doa eta mezuaren ardatzari buruzko informazioa da. Diskurtsoak gai konkretua badu, erreferentea du eta funtzio erreferentziala argi ikusten da; testuetan agertzen da, baina horrek ez du esan nahi funtzio hori nagusia denik; sarritan ez du lehentasunik.

##### ALDIBEREKOTASUN(A):

Zeinu Hizkuntzako zeinuen ezaugarria da, prestakuntzako parametroak batera egiten baitira. Adibidez, esku biez batera eta aurpegiaren adierazpenaz zeinuren bat egiten denean.

##### ARTIKULAZIO BIKOITZ(A):

Hizkuntz zeinuek duten ezaugarria da. Lehenengo artikulazioa esanahirik gabeko zeinuaren unitaterik txikienari dagokiona da; adibidez: fonema, prestakuntzako parametroa, etab. Bigarren artikulazioa, adierazia duen zeinuaren unitate linguistiko txikiena da; adibidez: monemak, marka adierazgarriak, etab.

**BIDE(A) edo kanal(a):**

Mezua bideratzen den bitartekari fisikoa da, igorlearen mezua hartzaileari hurbiltzen diona: telefono mugikorrek uhinak ditu bitartekari; gutunetan papera da bidea edo kanala.

**BLISS sistema:**

Hizkuntza mota bat da, hizkerarik ez dutenek edo hautabidezko komunikazioa behar dutenek erabiltzen dutena. Kode hori munduan zehar hedatuta dago. Horren zeinuak (ikonoak, indizeak eta sinboloak) idatzizko hitzarekin lagunduta daude. Berezko morfologia eta sintaxia ditu, baina inguruekoekin komunikazioa errazteko Erkidego Autonomoaren jatorrizko hizkuntzaren sintaxia har dezake erabiltzaileak.

**DESKODEKETA edo deskodifikazio(a):**

Hartzaileak mezua ulertzeko egiten duen prozesu mentala da: zeinuak identifikatzea, interpretatzea eta esaldiaren esanahia osatzea da. Hartzaileak deskodifikazioa egiteko gai izan behar du bidalitako mezua ulertzeko.

**DISARTRIA:**

Gaixotasun mota bat da, hizkerak edo hitzak nahastea eragiten duena. Dislaliak, disglosiak eta disartriak fonemen artikulazioan arazoak sorrarazten dituzte.

**DISPRAXIA:**

Gaixotasun mota bat da, mugimenduen koordinazioari eragiten diona. Dispraxia duten hurrek mugimendu atetosikoak egiten dituzte eta ekintza errazak (ura edatea, gauza bat hartzea) zail bihurtzen dira. Rett sindromean dispraxia larria da

**ERREDUNDANTZI(A):**

Mezuan sartzen ditugun errepikapenak dira; hau da: sinonimoak, deiktikoak, etab.; adierazlearen adierazia ulergaitz ez uzteko erabiltzen direnak.

**ERREFERENTE(A):**

Mezuaz ari dena da, testutik kanpo dagoena; objektua edo tresna ukigarria, ikusgarria izan daiteke eta mezuari zehaztasuna ematen dio. Diskurtso konkretuetan baino ez dago erreferenterik.

**FATIKO(A), funtzio fatiko(a) edo euslea:**

Komunikazioa bidaltzerakoan, bidea ea oztoporik gabe dagoen egiaztatzen du funtzio fatikoak. Igorlearen mezua hartzailearengana heltzeko bideak edo kanalak eragozpenik gabe egon behar du.

**FONEM(A):**

Hizkuntz zeinuaren irudi akustikoa da, esanahirik gabeko hitzaren unitaterik txikiena dena. Hizkuntzako fonemek hitzak osatzen dituzte. Adibidez: «liburu» hitza fonemetan zati daitezke: //, /i/, /b/, /u/, /r/, /u/, beraz, 6 fonema ditu edo 6 irudi

akustiko, fonema ezberdinak 5 izanik, /u/ deritzon fonema errepikaturik dago eta. Zeinu Hizkuntzak fonemak eduki beharrean prestakuntzazko parametroak ditu.

#### **HAPTIKA:**

Usaimenaren esanahia aztertzen duen jakintzagaia da; hitzekoa ez den komunikazioan kontuan hartzen dena. Izerdiaren, hatsaren, gorputzaren eta jantzien usainak, baita ordezko usainak ere ikasten ditu haptikak.

#### **HARTZAILE(A):**

Igorleak bidalitako mezuaren jasotzailea da. Berak, informazioa ulertzeko, zeinuen identifikazioa, ulermena eta mezuaren deskodifikazioa egiten du buruan; hartzaileak ez badu koderik ulertzen, ez dago komunikaziorik, igorlea kode horretan aditua izan arren.

#### **HAUTAGARRITASUN(A):**

Hizkuntz zeinuaren berezitasun bat da, adierazia adierazle batekin uztartzen duen era arbitrarioa.

#### **HIZKERA:**

Hizkuntzaren jarduera da. Bakoitzak hitz egiten duen era da, hizkuntzaren erabilpen konkretutik sortzen dena.

#### **HIZKETA EKOLALIKA:**

Besteek esaten dutena testuingurutik kanpo berriz esatea da. Zenbait autistak hizkera ekolalika dute.

#### **KODE(A):**

Sistema bat da, zeinuz eta araubidez osaturik; kodea zeinu kopuruaren arabera eta kodearen nolokotasunak kontuan harturik erraza edo zaila izaten da. Adibidez: semaforoen sistemak hiru kolore ditu (laranja, gorria, berdea) eta bere zeinuen arteko arauak batak besteei deusezta ditzake da; beraz, oso sistema erraza da; aitzitik, hizkuntzako kodeak konplexuagoak dira.

#### **HIZKUNTZA BERBAL(A):**

Hizkuntz zeinuez konposaturik eta araubideen bidez antolaturik dagoen kodea da: euskara, gaztelania, etab. Gizakiok, hizkuntza hitzekoa ez den komunikazioarekin batera erabiltzen dugu mezuak bidaltzeko.

#### **HIZKUNTZ ZEINU(A):**

Sinbolo mota bat da, hautagarritasuna, linealtasuna eta artikulazio bikoitza dituena. Hizkuntzetan mezuak egiteko erabiltzen dira.

#### **HUNKITZAILE(A), funtzio hunkitzaile(a), espresibo(a) edo adierazkorr(a):**

Igorlearen asmoa edo ikuspuntua, erakusten duen funtzioa da. Behin baino gehiagotan, funtzio adierazkorra testuan aurkitzea zaila da, igorlearen motibazioa zeharkakoa bada edo mezuaren katea azpian badago. Hizkuntz funtzioak hauexek dira: funtzio aipatzailea, funtzio euslea, funtzio metalinguistikoa, funtzio poetikoa, agindu funtzioa eta funtzio hunkitzailea.

### **IGORLEA:**

Mezua bidaltzen duena da. Gizaki nahiz talde bat (ama, maisua, udala...), baita animalia, eguzkia, zein tresna ere (telebista, ordenagailua) izan daitezke igorleak.

### **IKONO(A):**

Zeinu artifiziala da, erreferentearekin parekotasunik handiena gordetzen duena: argazkiak, KPS-ren irudiak, PIC piktograma batzuk, Rebus-en marrazkiak, etab. ikonoak dira.

### **INDIZE(A):**

Zeinu artifiziala da, erreferentearekin parekotasunen bat duena. PIC deritzon komunikazio sisteman zenbait zeinu indizeak dira; adibidez, "goian" edo "behean" konzeptuak adierazteko kartoizko fitxa beltzez irudikatutako gezi zuriak indizeak dira.

### **INDIZIO(A):**

Jatorrizko zeinua da; berez sortzen da. Adibidez: kea, kaskabarrak, etab.

### **KEROLOGI(A):**

Prestakuntzazko parametroak edo keremak irakasten dituen jakintzagaia da, Zeinu Hizkuntzako prestakuntzazko parametroak aztertzen dituena.

### **KINESIKA:**

Gorputzaren jarrerak, keinuak eta aurpegiaren adierazpenak aztertzen dituen jakintzagaia da. Komunikazio hori analogikoa delako, ez

du interpretazio unibokorik, zeinu kinesikoak testuinguruaren arabera, lurraldearen arabera, esanahi bat baino gehiago har dezake.

### **KODE(A):**

Mezuaren zeinuak arautzeko erabiltzen den sistema da. Zeinu kopuru mugatu bat eta horren araubidea dira kodearen osagaiak. Sistemarik landuenak hizkuntzak dira; hizkuntzez gain: zirkulazio araudia, musikarena, Braille alfabetoa, etab. kodeak dira.

### **KODIFIKAZIO(A):**

Igorleak idatzizko edo hitzezko mezua adierazteko (zeinuak aukeratzeko eta esaldiak ordena batean adierazteko) egiten duen prozesu mentala da. Igorleak, mezua bidaltzeko, kodifikatzeko gai izan behar du.

### **KOMUNIKAZIO(A):**

Komunikazioa pertsona biren edo gehiagoren arteko harremana da:berba egitea, laztantzea, borrokatzea, begitartzea... Jardueran igorleak hartzaile bati bidaltzen dio informazioa, igorleak eta hartzaileak elkarri ulertzeko gai izanik.

### **KONATIBO(A), funtzio konatibo(a), eragile(a) edo agindu funtzio(a):**

Hartzailea zerbait egitera edo esatera bultzatzen duenean funtzio konatiboa dago diskurtsoan. Funtzio hori zuzen edo zeharka agertzen da testuan.

### **KONTESTU(A) :**

Bi kontestu mota dago: bata, hizkuntz gertaera eta, bestea, testuingurunea. Lehenengoak testuaren hizkuntz gertaera kontuan hartzen du; bigarrena igorlearen eta hartzailearen arteko esparru fisikoa da. Kontestuek informazioa ondo ulertzeko erabateko eragina dute komunikazioan.

### **KPS-a, Johnson-en KPS-a:**

Komunikatzeko baliabide hori ez da hizkuntza bat. Fitxetan iruditutako ikonoek eta beste hizkuntz zeinu batzuek KPS-a osatzen dute; ez du sintaxirik ezta morfologiaren ezaugarri batzuk ere. Baliabide horren zeinuak argiak direlako Espainian guztiz hedaturik daude adimen urrikotasuna dutenek hizkera eta idazkera ikasteko; komunikatzeko baliabide hori Elkarte Autonomoaren hizkuntzako sintaxiarekin batera erabil daiteke zailtasunik gabe.

### **LEXIGRAMA(K):**

Komunikatzeko baliabide honek bederatzi zeinu ditu, Estatu Batuetan hizkuntz saiakuntzaren arloan erabiltzen direnak. Lexigramek ez dute zerikusirik erreferentearekin, Premack-en pezek bezala.

### **LINEALTASUN(A):**

Hizkuntz zeinuen berezitasun bat da, zeinuen lerrokapena bata bestearen segidan egiten dena. Zeinu Hizkuntzako zenbait zeinuk ez dute linealtasunik eta aldiberekotasunez egiten dira.

### **MARKA ADIERAZGARRI(A):**

Zeinu Hizkuntzako hizkuntz kategoriak eratzeko erabiltzen diren monemak dira; horiek morfemek eta lexemek bezala eragiten dute, berezitasun nagusiak bi izanik: aditzen morfemak lexema bihur daitezke aditzen aspektua adierazteko, adibidez, eta linealtasunik eza marka adierazgarriak aldiberekotasunez egiten dira eta.

### **METALINGUISTIKO(A), funtzio metalinguistiko(a):**

Kodearekin loturik dago; izan ere, hartzaileak uler ez ditzakeen zeinuen adieraziak argitzen ditu funtzio horrek; sinonimoek, errepikapenek eta erlatibozko esaldiek betetzen dute hizkuntz funtzio hori.

### **MEZU(A):**

Igorleak hartzaileari bidaltzen dion informazioaren edukia da; mezua kode batean, araubide batean, adierazten da, hartzaileak eta igorleak ezagutzen dutena.

### **MINTZAIRA:**

Gizakien ahalmena da, berari esker komunikazioa sortzen da. Mintzaira burmuineko eremu bitan kokaturik dago. Autistek garunaren eremu horietan kalte dutelako ez dute ahalmenik zerbait esateko eta ez dute beharrik lagunekin harremanetan jartzeko.



### **MONEMA:**

Unitate linguistikorik txikiena da, adieraziren bat duena. Monemek hizkuntza berbalak osatzen dituzte; bi mota daude: lexemak eta morfemak. Zeinu Hizkuntzan ez dago fonemarik ezta morfemarik ere eta prestakuntzazko parametroek eta marka adierazgarriek betetzen dituzte funtzio horiek.

### **ORDEZKO(A):**

Hizkuntz zeinuen arteko sinbolo mota bat da, hautabidezko komunikazioaren kodetan eta baliabidetan erabiltzen dena. Zeinu Hizkuntzan eta Bliss deritzon sisteman ordezekoak dira sinbolo gehienak. Hautagarritasuna eta artikulazio bikoitza ditu; horrez gain, sinbolo ordezekoak linealtasunez edo aldiberekotasunez egin daitezke.

### **PARALENGOAI:**

Ahotsaren aldaketa, erritmoaren modulazioa, tonuaren zorrotasuna edo ahotsaren ozentasuna eta bezalako bereizgarriak biltzen ditu paralengoaiak.

### **PRESTAKUNTZAZKO PARAMETRO(a):**

Berbalak ez diren hizkuntzek fonemak eduki beharrean parametro formatiboak dauzkate; beraien bidez, zeinuak osatzen dituzte. Zeinu Hizkuntzak eta Bliss hizkuntzak prestakuntzazko parametroak dituzte zeinuaren lehenengo artikulazioa betetzeko; parametro horiek

hizkuntzaren arabera aldatzen dira. Zeinu Hizkuntzakoak hauexek dira: eskuarenak (egitura, norabidea, lotunea), planoak, lekua, gorputz mugimenduak eta aurpegiaren adierazpenak.

### **PIC PIKTOGRAMA:**

Ikonoa da, kartoizko fitxetan irudikatuta. Ikonoz gain, beste zeinu batzuekin osa daiteke komunikatzeko hautabidezko baliabide hori. Ez du berezko morfologiarik edo syntaxirik eta lurraldeko jatorrizko hizkuntzarekin betetzen ditu hutsune horiek. Kanadan, Suedian eta Norvegian erabiltzen dira.

### **PIKTOGRAMA:**

Hizkuntz zeinurik erabili barik mezua bidaltzen duen marrazki sinbolikoa dugu piktograma; zenbait herritan idazkera modu primitiboa izan zena. Gaur egun, PIC deritzon piktogramak fitxak dira; horien zeinuak ikonoak izan arren, piktogramak esaten zaie.

### **POETIKO(A), funtzio poetiko(a):**

Funtzio horren ardura mezuaren era da. Igorleak mezua edertasunez edo biraoz kodifika dezake eta bi eratan funtzio poetikoa dago. Funtzio poetikak estetikara edo kolokialera bideratzen du mezuaren era.

### **PREMAK-en PEZ(AK) edo FITX(AK):**

Komunikatzeko baliabide hori, Britainia Handian eta Estatu Batuetan, adimen urriko pertsonen

eta autistei irakasteko erabiltzen da. Jatorrizko erabilpena tximinoei hizkuntza irakastea izan zen; horregatik, peza horiek ez dute erreferentearekin parekotasunik izaten; plastikozko edo egurrezko objektu txikiak dira eta eskuz mugi daitezke. Indizioak direla esan dezakegu.

### **PROXEMIKA:**

Harremanetan edo lagunekin komunikazioan erabiltzen dugun espazioa edo esparru fisikoa aztertzen du proxemikak. Espazioaren okupazioari buruzko ohiturak, lurraldetasun sentimendua, espazio horren hedadura, etab. kontuan hartzen ditu proxemikak.

### **REBUS BALIABIDE HIEROGLIFIKO(A):**

Komunikatzeko jarraibide mota bat da atzerakuntza arina dutenenei irakurtzen irakasteko erabiltzen dena. Hautabidezko komunikazio hori lurraldeko jatorrizko hizkuntzarekin batera ikasten da; izan ere, horien ikonoak idatzizko hitzarekin daude. Norvegian eta Espainian ez dago egokiturik eta ez da erabiltzen.

### **RETT SINDROME(A):**

Buruko gaixotasun hori larria da; jaiotzekiko gaixotasuna da, emakumeei bakarrik suertatzen zaie; gaixoen apraxia larria, eskuez mugimendu estereotipatuak, besteak beste, jasaten dituzte; gainera, ezin dute hitz egin, ibili, etab.

### **SEMILOGIA edo SEMIOTIKA:**

Zientziak edo jakingaiak direla esan dezakegu; zientzi horiek inguruko zeinuak ulertzea dute helburu. Semiotikak, hain zuzen ere, modaren gertaerak, jendaurreko ikuskizunen ezangurak, kontsumoaren esanahiak eta, orokorrean, gizartetik sortzen diren gertaerak ikasten ditu; Adibidez, luma estilografikoak gure gizartean dotorezia konnota dezakeela esaten digu semiologiak. Beraz, Semiotikak gizakiok jendaurreko zeinuei ematen diegun zer zentzu konnotatiboa azaltzen digu. Oro har, esan dezakegu Semiotika eta Semiologia komunikazioaren arlo berean daudela, Semiologia jakintzagai zabalagoa den arren.

### **SIGSYM sistema:**

Ez da hizkuntza, komunikazio jarraibide bat baizik. Ikonoak eta Zeinu Hizkuntzatik hartutako zeinu irudien bidez osaturik Zeinu Hizkuntza idazteko erabil daiteke.

### **SINBOLO LINGUISTIKO(A):**

Zeinu artifizialen arteko zeinu mota bat da, erreferentearekin parekotasunik ez duena. Bi motatakoak dira: ez linguistikoak: gurutzeta, igitaia eta mailua, adibidez, eta hizkuntz zeinuak, beraiek berbalak eta ordezkioak izanik. Hizkuntzak eta komunikatzeko kode eta baliabide batzuk sinbolo linguistikoz osaturik daude.

### **ZARATA:**

Hizkuntzalaritzan, zaratak ez du soinuaren adierazi bera, kontzeptu honen esparrua zabalagoa da: mezuak komunikazioaren bidean edo kanalean duen traba edo eragozpena da. Adibidez, txosteneko zirriborroak, kaligrafia zabarra, telebistako interferentziak, etab.

### **ZEINU HIZKUNTZA:**

Hizkuntza mota bat da gorrek eta adimenean gaixotasun batzuk dituztenek erabil dezaketena. Sinbolo ordezkioak ditu eta araubidearen bidez antolatuta dago; Zeinu Hizkuntzak berezko kerologia, morfologia eta sintaxia ditu eta lurralde bakoitzak bere zeinu hizkuntza du; EZH-ek (Estatuan erabiltzen den zeinu hizkuntzek) ez du zerikusirik Estatu Batuetan erabiltzen denarekin; lurralde bakoitzak bere zeinu hizkuntza du. Euskal Herrian Zeinu Hizkuntza behar dutenek idazteko gaztelaniaz edo euskaraz egiten dute eta ahozkoan EZH-z baliatzen dira; baliteke euskaraz bizi diren gorrek, esaldien ordenaren aldetik, euskararen sintaxiaren eragina izatea.

### 3.2. GAZTELANIA-EUSKERA HIZTEGIA

#### A

Acción comunicativa .. ..	Komunikazio ekintza
Actividad motriz .. .. .	Mugimenezko jarduera
Afasia .. .. .	Afasia
Afectación motora .. ..	Mugimenezko afektazio
Anáfora .. .. .	Anafora
Apraxia .. .. .	Apraxia
Aptitud .. .. .	Gaitasun
Arbitrariedad (del signo) ..	Hautagarritasun
Argumentativo .. .. .	Argudio diskurtso
Atraso .. .. .	Atzerapen
Autismo .. .. .	Autismo
Ayuda individualizada .. ..	Banan-banako laguntza

#### B

Bliss .. .. .	Bliss
---------------	-------

#### C

Campo semántico .. .. .	Eremu semantiko
Canal .. .. .	Bide, kanal, hedabide
Capacitación lectora .. ..	Irakurmen-lanketa
Ciclo de Animador Sociocultural .. .. .	Gizarte eta Kultur animazioa ziklo
Ciclo de Educación Infantil	Haur Hezkuntza ziklo
Ciclo de Integración Social	Gizarte Integrazioa ziklo
Ciclo de Lengua de Signos	Zeinu Hizkuntza ziklo
Codificación .. .. .	Kodifikazio
Codificar .. .. .	Kodifikatu
Código .. .. .	Kode, sistema
Coherencia .. .. .	Koherentzia, egokitasun
Competencia lingüística ..	Hizkuntz gaitasun
Composición (lexical) .. ..	Berrezarpen lexikal
Comprensión lectora .. ..	Irakurriaren ulermen

Comunicación .. .. .	Komunikazio
Comunicación escrita .. ..	Idatzizko komunikazio
Comunicación no verbal ..	Hitzezkoa ez den komunikazio
Comunicación oral .. .. .	Ahozko komunikazio
Contexto físico .. .. .	Une, leku, kontestu fisiko
Contexto lingüístico .. ..	Hizkuntz kontestu
Contexto situacional .. ..	Egoera fisiko

#### D

Deficiente motriz .. .. .	Mugimen urriko
Deíctico .. .. .	Deiktiko
Deixis .. .. .	Deixia
Descodificación .. .. .	Deskodifikazio
Descodificar .. .. .	Deskodifikatu
Descripción .. .. .	Deskribapen
Disartría .. .. .	Disartria
Disminuido físico .. .. .	Gorputz-urritu
Dispraxia .. .. .	Dispraxia
Doble articulación .. .. .	Artikulazio bikoitz

#### E

Educador de disminuidos psíquicos .. .. .	Buru urrituen hezitzaile
Emisor .. .. .	Igorle
Exposición (discurso expositivo) .. .. .	Azalpen diskurtso
Exposición oral .. .. .	Hitzezko azalpen
Expresión oral .. .. .	Mintzamen

#### F

Fonema .. .. .	Fonema
Función conativa .. .. .	Agindu funtzio
Funciones lingüísticas .. ..	Hizkuntz funtzioak
Función expresiva .. .. .	Funtzio espresibo, adierazkor edo hunkitzaile

Función fática o de contacto .. .. . Funtzio fatiko edo eusle  
 Función metalingüística .. Funtzio metalinguistikoa  
 Función poética .. .. . Funtzio poetiko  
 Función referencial .. .. . Funtzio aipatzaile edo erreferentzial

## H

Habla ecológica .. .. . Hizkera ekolalika  
 Háptica .. .. . Haptika

## I

Icono .. .. . Ikono  
 Inadaptado .. .. . Moldagabezia  
 Índice (tipo de signo) .. .. Indize  
 Indicio (tipo de signo) .. .. Indizio  
 Interacción táctil .. .. . Ukimenezko elkarreragin  
 Invalidez permanente total Guztizko balia ezintasun iraunkor

## K

Kinésica .. .. . Kinesika

## L

Lengua de signos .. .. . Zeinu Hizkuntza  
 Lengua de signos española (LSE) .. .. . Espainiaren Zeinu hizkuntza (EZH)  
 Lengua no verbal .. .. . Berbala ez den hizkuntza  
 Lengua verbal .. .. . Hizkuntza berbal  
 Lexigrama .. .. . Lexigrama  
 Linealidad (del signo) .. .. Linealtasun

## M

Mensaje .. .. . Mezu  
 Método de enseñanza de la lectura .. .. . Irakurbide  
 Método jeroglífico de Rebus Rebus-en baliabide hieroglifiko  
 Modificación fonológica .. Berrikuntza fonologiko  
 Modo de discurso .. .. . Diskurtso mota  
 Monema .. .. . Monema  
 Movimiento atetósico .. .. Mugimendu atetosiko

## N

Narración .. .. . Narrazio  
 Nivel de comprensión .. .. Ulermen-maila  
 Nivel lingüístico .. .. . Hizkuntz maila (jaso, culto, técnico, coloquial) .. tekniko, kolokial)

## P

Paralítico cerebral .. .. . Garun paralitiko  
 Parámetro formativo .. .. . Preztakuntzazko parametro  
 Pedagogía terapéutica .. .. Sendabidezko pedagogia  
 Pensamiento creativo .. .. . Sormenezko pentsaera  
 Pérdida de audición profunda Entzumen urritasun handi  
 Persona con deficiencia mental Adimen urriko pertsona  
 Pictograma .. .. . Piktograma  
 Pictograma PIC .. .. . PIK piktograma  
 Piezas o fichas Premack .. .. Premack-en pezak edo fitzak  
 Proxémica .. .. . Proxemika

Q

Querología .. .. . Kerologia

R

Receptor .. .. . Hartzaille

Referente .. .. . Erreferente

Retraso en el desarrollo del lenguaje

.. .. . Hizkuntza garapenaren atzerakuntza

Retraso mental .. .. . Buruko atzerakuntza

Retroalimentación .. .. . Atzeraelikadura

S

Significado .. .. . Adierazi

Significante .. .. . Adierazle

Signo sigsym .. .. . Sigsym zeinu

Símbolo lingüístico .. .. . Hizkuntz zeinu

Simultaneidad (del signo) Aldiberekotasun

Síndrome de Down .. .. . Down sindrome

Síndrome de Rett .. .. . Rett sindrome

Sistema .. .. . Sistema

Situación comunicativa .. . Komunikazio egoera

Sordera profunda .. .. . Gortasun handi edo sakon

Sordo .. .. . Gor

SPC de Johnson .. .. . Johnson-en KPS

T

Terapia ocupacional .. . Okupazio-terapia

Tipo de texto .. .. . Testu mota

Trastorno del lenguaje .. . Mintzairaren nahaste




# alfabeto daktilologikoa

<b>a</b> armiarma 	<b>b</b> begiak 	<b>d</b> dantorra 	<b>e</b> eguzkia 	<b>f</b> fruitua 
<b>g</b> gazta 	<b>h</b> hodeia 	<b>i</b> ilargia 	<b>j</b> jaia 	<b>k</b> katsua 
<b>l</b> leioa 	<b>m</b> mendia 	<b>n</b> negarra 	<b>ñ</b> andereñoa 	<b>o</b> oilaskoa 
<b>p</b> perretxikoa 	<b>r</b> euria 	<b>r</b> arraina 	<b>s</b> sagarra 	<b>t</b> trikiñak 
<b>ts</b> tsasontzia 	<b>tt</b> tutita 	<b>tx</b> txakurra 	<b>tz</b> galza 	<b>u</b> udarea 
<b>x</b> xaboisia 	<b>z</b> zuhaitza 	<b>c</b> <b>q</b> <b>v</b> <b>w</b> <b>y</b> 		

Ilustrazioak: Aitor Esteban

Euskarara egokitu gabeko atzerri-hitz eta izen berezietan soilik erabiltzen dira.

ISBN 84-932368-8-8



9 788493 236885 >

argitaratzailea: Alantxa



ASOCIACION DE SORDOS DE BILBAO  
BILBOKO GORRIEN EKARTEA  
P. 10011A, CALLE DE LA VIGILANCIA, 10011A  
47. C/ San Juan Bautista de Guzmán, 11. 48901  
Tel: 946 491272. FAX: 946 491273  
www.associaciondsordosbilbao.com



**dakit**  
argitaldaria